

hiruka

174. zenbakia
2021eko iraila

LETICIA CANALES Surflari profesionala

«Orain, politena dator: mundura zabaltzea»



22 asteazkena

Aretoa: EREAGA

19:00 **MIREN & ROBERTO**

ETXEBARRIA

8€

23 osteguna

Aretoa: EREAGA

19:00 **JUDITH MATEO**

10€

24 ostirala

Aretoa: EREAGA

19:00 **AMPARANOIA**

20€

25 larunbata

Aretoa: ARRIGUNAGA

12:30 **Titiriteros de Binéfar**

Gonbidapenez

17:00 **Trakamatraka**

Gonbidapenez

Aretoa: EREAGA

19:00 **CARLOS NÚÑEZ**

20€

26 igandea

Aretoa: EREAGA

12:30 **Bitartean**

8€

19:00 **FABIÁN CARBONE**

10€

FOLK

getxo 2021

SALTOKIAK

Muxikebarri (Basagoti etorb. 77)
Romo Kultur Etxea (S. Eugenia plaza. 1)



Getxoko Kultur Etxea
www.getxo.eus
94 466 01 23

37. Nazioarteko Folk Jaialdia

MUXIKEBARRI

irailak 22-26



Getxoko Kultur Etxea
94 466 01 23
www.getxo.eus
kulturetxea@getxo.eus

ANTOLATZAILEAK



Getxo
baita erdian



Getxo
baita erdian

BABESLEAK



LAGUNTZAILEA



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 10 Larrubizi
- 11 Naturaren behatokitik
- 12 Zientzia etxeko atarian
- 13 Euskarari, atera kontuk!
- 14 Hirudika
- 20 Lehen/orain eta Uribitakora
- 21 Musikhariak
- 22 Leticia Canales surflariagaz berbetan
- 26 Usategi
- 27 Hezkuntza gehigarri berezia
- 36 Uribekostarrak Tokio 2020 Olinpiar Jokoetan
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefona: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Asier Barruetabeña, Joanes Atxa, Karlos Aretxabaleta Txapel, Xabier Buenetxea, Riki Mutuberria, Joseba Santxo.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Euskal Errepublika?

AITOR GARAGARZA



Gorliz, Berango eta Plentzia, Abantorekin batera, izan dira pandemia garaian etxebizitzak gehien garestitu dituzten Bizkaiko herriak. Uribe Kostan hainbat gaztek eta familek etxebizitza eskuratzeko arazoak bazituzten, egoera okertu egin da.

Arazo horrekin lotura zuzena dauka 2015eko Lurzoruaren Legeak: Madrilek irizpide orokorrak markatzen ditu, HAPOak eraikitzaile handien menpe jartzen dira, ondare naturala hondatzen da, eta tokiko komertzioa itotzen duten saltoki handien alde egiten da.

Mediterraneoan edo Estatuko beste herrietan egindako sarraskia ikusita –itsasertzeko urbanizazio edo hotelak, adibidez–, gure egoera hain txarra ez dela uste dugu. Inozoen kontsolamendua, askoren gaitza.

Gurean, *SopelMar* edo Lemoizko zentral nuklearra ditugu, eta horren lurrak «itzuli zizkiguten», baina ez Lemoizko herriari, eta horien kutsadura maila ezagutu gabe; kostaldean egindako anabasaren kostua gure poltsikotik ordaindu beharko dugu, beste behin. Bitartean, Madrilek aginduta, Plentziako futbol-zelaiaren kontzesioa bost urte barru bukatuko da. Nork uler dezake?

Eskumenak bai, baina 78ko erregimenaren mugen barruan; dependentziaren kostuak ikaragarriak dira, aska ditzagun amarrak.

Erabakitze abagunea

ZELAI NIKOLAS Gure Esku



Zer erantzungo zenuke, esango banizu aldaketa politiko unearen atarian gaudela? Adituek diotenez, *momentum* berri baten abagunearen arrastoak badirela? Erne egonda, zuk zeuk egiaztatze aukera duzu.

Ez al da klima aldaketa orain arteko eredu ekonomiko eta sozialaren mugak agerian uzten, eta ekologia eta gizartea berritzeko beharra azalarazten? Eskoziaren bigarren erreferendumak ez al ditu Europako mapa eta harreman politikoak eraldatuko? Katalunia bere independentziaren erreferenduma lege egiteko ahaleginetan dabil, ez al da agerian geratzen bozkatzeko demokrazian ezin daitekeela delitu izan?

Euskal Herrian, Gure Eskuk *Hamaika Gara* ekimenaren baitan sinadura bilketa abian du, gurean ere erreferenduma lege jaso dadin (autogobernu ponentziak eskaintzen du horretarako abagunea). Gainera, Kataluniako ANC eta Omnium gizarte-eragileekin elkarlanean, Pirinioetako gainak argiztatzera goaz, 2022ko uztailan, Europari eta munduari ozen esateko bi herri garela gure etorkizuna libreki erabaki nahi dugunak. Hori ezin daiteke demokrazian delitu izan. Elkartasunetik elkarlanerako baldintzak sortzera goaz. Erabakitze abagunea elikatzea Gure Esku dago.

Puntua eta kontrapuntua **Surfa**

Olaturik onena



Koronabirusaren
gaia gori-gori
dago eta ez zaio
ahazten inori.
Antza behar ditugu
urte bat edo bi
'normaltasun berrira'
iristeko, ongi:
Zein da amesten duzun
'normaltasun' hori?

AITOR
ESTEBAN
ETXEBARRIA
Itzulbatzeta/Romo

Parafina ta inbentoa
jartzeko oihi ozena;
Ez hanka ez buru ezta
likrarik ez duena.
Forma oso dotorean
sartu digutena.
Zein hondartza liteke
guretzat onena?
Olaturik onena
etortzeaz dagoena.

GALDER
BILBAO
MARTINEZ TXAPI
Udondo



Jevo Jevardo Musikaria

«Gure buruaz gehiago barre egiten ikasi beharko genuke»



Bakarlari moduan bere lehenengo lana kaleratu berri du Jevo Jevardo musikari algortarrak. El Reno Renardo taldeagaz ere diskoa kaleratuko du udagoieneran.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Heavy musikaren letrek ez dute zertan loturarik izan infernuagaz, Satanegaz edo motorrakaz. Horren adibide argia da Jevo Jevardo musikari algortarra: «Betidanik gustatu zait heavy musika, baina letretan beti entzun ditut gai berberak. Nik beste estilo bat bilatu nahi nuen». Eta zalantzarik gabe, estilo propio hori sortzea lortu du. 2006. urtean El Reno Renardo taldea sortu zuen, bakarlari moduan eta modu anonimoan interneten arrakasta lortu ostean. Gaur egun, *freak metal* estiloaren erreferente nagusietako bat da: «Saiatzen naiz bizitza umore puntu batez bizitzen. Geure buruaz gehiago barre egiten ikasi beharko genuke, eta ingurukoez ere bai!». Eta hori El Reno Renardoren letretan nabaritzen da: «Egunerokota-

sunean gertatzen zaizkigun gauzez edo nahi dugunaz hitz egiten dugu, adibidez, autobus batean kakapirria izateaz».

Freaky etiketaz arazorik ez duen arren, ez du bere burua guztiz identifikatzen horregaz: «Ez dut Star Wars ha maika bider ikusi, ez naiz Star Trek zalea, ez dut gustoko *manga* edo *anime*, ez dut Pakistango zinea jarraitzen... baina tira, ez digu axola».

Bakarlari moduan bere lehenengo lana kaleratu berri du, *Todo mal* izenburupean: «Kasu honetan, apur bat aldarrikatzaileagoa izan naiz, probokatzailagoa, eta musika gogorragoagaz». El Reno Renardogaz ere diskoa kaleratuko du udagoieneran, *El mundo se va a la mierda*, baina, momentuz, ez dute kontzerturik eskaini nahi izan: «Osasun-krisia hasi zenetik ez dugu kontzerturik antolatatu. Ez dugu zuzenkorik eskaini nahi izan publikoa eserita dagoen bitartean. Zorionez, taldekide bakoitzak bere lana du, eta ez dugu diru horren beharrik, nahiz eta hipoteka ordaintzeko lagungarria izan». Abenduan ipini dute lehenengo hitzordua Bilbon, esperantzaz: «Espero dugu kaña batzuk hartzen zuzenekoaz gozatu ahal izatea!». ◀

Getxo Getxophoto Nazioarteko Irudi Jaialdia

«Elkarbanatu» lelopean, martxan da Getxophoto

Irailaren 26ra bitartean, publiko guztiarentzako jarduera-programa zabala antolatu dute Getxon. Ekitaldiak aurrez aurrekoak zein online bidezkoak izango dira.



Aurten, auzo gehiagotara zabaldu da kaleko erakusketa. HODEI TORRES

Begihandi kolektiboak bultzatzen du Getxophoto; horrek gizon-emakumeoi eragiten dizkiguten gai handiei heltzeko, bizitzeko eta horiei aurre egiteko bitarteko gisa ulertzen du irudia. Hala, arduradunek azaldu dutenez, pentsaera kritikoa pizteko eta gizarteagaz elkarriketa bat abiatzeko plataforma edo abiapuntu bat da jaialdia.

Aurten ere, iaz bezala, Jon Uriarte, Londreseko The Photographers' Gallery-ko komisario digitala, da Getxoko jaialdiko zuzendari artistikoa. Eta oraingoan, «Elkarbanatu» lelopean, partekatzearen ideiaz gaur egun duten adiera berriak aztertuko ditu jaialdiak, hala nola informazioa eskuratzea, migrazio-fluxuak eta, batez ere, gero eta desberdintasun ekonomiko handiagoak nagusi diren testuinguru planetarioa.

Ohi den legez, Ereaga, Portu Zaharra eta Algorta dira egunotan Getxophotoren erdigunea; hala ere,

oraingoan, beste auzo batzuetara egingo du salto jaialdiak, hala nola Itzubaltzeta/Romora.

Iaz bezala, pandemiak ekimenak goitik behera irauli dituen arren, aurreko urteko esperientziaz baliatu eta berritasunez beteriko jaialdia proposatu dute 2021 honetan. Horren harira, Uriarte komisarioak azaldu duenez, Getxoko auzokideek oso harrera ona egin diote jaialdiari, «urtero bezala». Izan ere, mota honetako proposamenen izaera hurbila azpimarratu du komisarioak; hau da, ikusten ari garen lanen nondik norakoak ezagutzeko, beren-beregi, sortzaileakaz euraiaz denbora partekatu ahal izatea. Izan ere, ikastaroez gainera, ibilbide gidatuak ere eskaintzen ditu jaialdiak.

Ekitaldietan parte hartzeko beharrezkoa da aldeztu aurretik izena ematea, eta, antolatzaileek iragarri dutenez, daborduko ia-ia leku guztiak beteta daude: «Harrera oso ona izan da aurten ere». ◀

Getxo Aste Kulturalak

Auzoz auzo, kulturaz murgiltzeko egitarauak antolatuko dituzte

Jakinekoa denez, aurten, pandemia dela eta, ezinezkoa izan da ohi bezala uda-ko jaiak ospatzea. Hala ere, gizarte-sarea suspertu, herritarren parte-hartzea sustatu eta pandemiak eragindako krisiaren ondorioak arintzeko asmoz, Kultur Etxeak sustatuta, auzoz auzoko Kultura Asteak egingo dituzte egunotan. Itzubaltzeta/Romon daborduko izan dira; egunotan, aldiz, irailaren 9tik 12ra bitartean, Andra Mari auzoko txanda izango da. Irailaren 13tik 19ra, berriz, egitarauak Areetako Santa Anara egingo du salto, ondoren, irailaren 27tik urriaren 3ra, Getxoko Malakatera bueltatzeko. Urriaren 3tik 14ra, Areetak izango du eskaintza, gerora, hilaren 18an, Portu Zaharrak kulturari heldu ahal izateko, urriaren 24ra bitartean. Ondoren, Zubilletan egon ahal izango da kultura eskaintzaz gozatzeko aukera, azaroaren 8tik 14ra egokitu baitzaio auzo horri egitaraua osatzea. Handik gutxira, Hezetasunak hartuko dio lekukoa, azaroaren 22tik 28ra bitartean, azkenik, Algortak berak berea eskaintzeko, abenduaren 3tik 10era hain zuzen ere.

Baliteke auzoren batean edo bestean egitaraurik ez egotea, edota datak aldatzea, udal-erriko elkarteek hala moldatu dutelako edo uko egin diotelako ezer ez antolatzeaz. ◀

Getxo Izakinen Amaierako Azoka

Askotariko pagotxak aukeran, irailaren 15etik 18ra

Aurreko edizioen ondoren, 2020ko irailekoa (online sustapen-kanpainak ordezkatu zuena) eta 2021eko martxokoa (establezimenduen barruan egin zena), Getxoko Udalak kanpainaren funtsa berreskuratu du, esekitoki eta mahaian bidez, produktuak kalera ateratzeko aukera emanez. Kontuak horrela, auzotarrek eta bisitariek udal-erriko denden kanpoaldean denetarik izango dute aukeran: modako artikulak, kirola egitekoak, oinetakoak, lentzeria, liburuak, altzariak, osagarriak...

Ohi bezala, eguraldi txarrak kanpoan merkatuaz gozatzeko aukerarik emango ez balu, irailaren 21era arte luzatzea aurreikusitakoa jakinarazi du Udalak. ◀

Leioa Irailaren 16tik 19ra

Kaleak barrez beteko dira Umore Azokaren itzulera

Umore Azokaren XXI. edizio honetan parte hartuko duten 39 konpainiek 94 ikuskizun eskainiko dituzte, Leioako kaleak antzezleku bihurtuz.

Umore Azokaren XXI. edizioa aurkeztu du Leioako Udalak, irailaren 16tik 19ra herriko kaleak berriro ere «ilusioz beteko» dituen programa batez. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, egungo egoera pandemikora egokitutako edizioa izango da, beraz, ikuskizun gehienak karpa azpian egingo dituzte. Hala ere, Euskal Herriko, espainiar Estatuko eta Europako beste herrialde batzuetatik etorritako 39 konpainiek Leioa agerleku bihurtuko dute, ikus-entzule guztientzako askotariko emanaldiakaz.

Irailaren 3an, Kultur Leioan egin zuten Umore Azokaren programazioaren aurkezpenean, egon ziren Iban Rodriguez Leioako alkatea, Aitziber Atorrasagasti Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko zuzendaria eta Begoña de Ibarra Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendaria.

«Umore Azoka tokiko ekonomia dinamizatzen duen hiriko ekitaldia baino askoz gehiago da; erreferentzia bat da. Halaber, gure herrialdeko kultur sektorearentzat, eta, gaur inoiz baino gehiago, gizartearen gogoia berreskuratzeko modu bikaina ere bada», adierazi du alkateak.

39 KONPAINIA ETA 94 EMANALDI. XXI. edizio honen programazioari dagokionez, antolatzaileek adierazi dute kalitatea eta aniztasuna nagusituko direla aurtengoan; izan ere, Batzorde Artistikoak 400 proposamen baino gehiagoren artean aukeratu ditu aurtengo konpainiak, programa ahalik eta zabaleki osatzeko xedez. Antzerkia, dantza eta zirku garaikidea izango dira aurtengo ardatz nagusiak, baina clownaren umorea, musika, magia, dantza bertikala, txotxongiloak eta ikuskizun piroteknikoak ere izango dira.

Sektoreari dagokionez, Umore Azoka Euskal Herriko kaleko arteen funtsezko erreferentzia izaten jarraitzen duela nabarmendu



Hortzmuga konpainiak alaitu zuen Umore Azokaren aurkezpena. HOPEI TORRES

9

antzezleku prestatu ditu Leioako Udalak: Errekalde plaza, Elexalde errota, udaletxe plaza, udaletxe biribilgunea, bulebarra, institutua, Aldapa auditoriuma, Udondo eta Kandelazubieta.

39

konpainiak parte hartuko dute.

94

ikuskizun egongo dira.

dute antolatzaileek; izan ere, 22 euskal konpainiak parte hartuko dute oraingoan, eta eskaintza berean euskal konpainia gehien kontzentratuko dituen lekua izango dela azpimarratu dute. Horretaz gain, espainiar Estatuko 14 konpainia eta nazioarteko hiruk parte hartuko dute, Belgika, Portugal eta Ukrainiatik etorritakoak. Kataluniako konpainien presentzia ere garrantzitsua izango da, neurri batean, Fira de Tarregagaz, nazioarteko hitzordu ospetsuagaz, egin duten Nomadas programari esker.

Zoritxarrez, aurtengo ez da aurkezpenik egongo, pandemiaren ondorioz jaialdia maiatzetik irailera mugitu behar izan dutelako, eta ikasturte artistikoa oso aurreratuta dagoelako.

UMOREA SEGURTASUNAGAZ. Aurtengo emanaldiak Leioako gune ezberdinetan egingo dituzte; gehienak karpa azpian. Horrela, antolatzaileek emanaldien edukiera kontrolatzeaz gain, ikuskizunak gauzatuko direla bermatuko dute, eguraldi txarra egiten badu ere. Ikuskizunetara sartzeko, segurtasun neurriak bete beharko direla ere azpimarratu zuten aurkezpenean: maskara erabiltzea, eskuak desinfektatzea, esleitutako eserlekuetan jartzea edo leku desberdinetatik sartu eta irtetea, besteak beste. ◀

Uribe Kosta Ongi Etorri Errefuxiatuen Marea Horia

«Eskubide guztiak, pertsona guztientzako, edonon»

Hainbat herritarrek parte hartu zuten Gorliz eta Plentzian, abuztuaren 21ean, egindako Marea Horia ekimenean. Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak antolatuta, mundu osoan milioika pertsonak bizi duten egoera salatu zuten.



Gorliz, Plentzia eta Lemoiz harrera-herri izateko nahia aldarrikatu zuten Marea Horian.

Beste urte batez, Gorliz, Lemoiz eta Plentziako Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformako kideek V. Marea Horia antolatu zuten, abuztuaren 21ean, zapatuan. Egun eguzkitsuak lagunduta, dozenaka lagunak egin zuten ibilbidea Astondotik Plentziako hondartzara, gero Ontziola plazara arte joateko. Horiekaz batera, itsasotik ere hainbat piraguek lagundu zieten ibilbidean. Gainera, egun horretan, hondartzak gainezka zeuden, eta asko izan ziren ustekabeen elkarretaratzeagaz bat egin zutenak.

Ibilbidean zehar, hainbat aldarrikapen oihukatu zituzten; besteak beste, exijitu zuten Kanariar Uharteetara, Ceutara eta Melillara iristen diren pertsonen legezkantza itzulketak bertan behera uztea eta Atzerritarren Barneratze-zentroak (CIES) behin betiko ixtea. Horretaz gain, erregularizazio-neurriak ere eskatu zituzten, pertsona

etorkinek beraien egoera legalizatu ahal dezaten.

«Bizitzen ari garen egoera salatu nahi dugu, etengabe gertatzen ari diren sarrasketara ohitu egin gara, baina hori komunikabideen aurrean salatu beharra dago», adierazi zuen Itziar Lizarraga plataformako kideak.

Ontziola plazan egin zuten ekitaldian, «Euskal Herri solidarioa» aldarrikatu zuten, «beraien jatorrizko herrialdeak utzi eta Europa iritsi nahian arriskuz eta zailtasunez beteriko bide bati ekin behar diotenekin». COVID-19aren pandemiak etorkinen egoera larriagotu duela deitoratu zuten, eta, horren aurrean, Europako Batasunari eta gobernuei exijitu zieten «erantzukizunak bere gain hartzeko» eta asilo-eskatzailerei harrera egiteko.

Amaitzeko, itsasoan desagertutako pertsonen omenaldia egin zieten, Agurra dantzatzu eta lore eskaintza eginez. ◀

Erandio Iraileko domeketan

«Eureka Domeka!» kultura-zikloa antolatu dute

Erandioko Gautxoariak elkarteak «Eureka Domeka!» kultura-zikloa antolatu du iraileko aste-akabuetarako. Ibaier-tza izango da ekitaldien antzezlekua, herriko «malekoian», Gasolinoaren geralekuaren ondoan, egingo baitituzte jarduerak; domeketan izango dira, 18:00etatik aurrera. Euria eginez gero, Altzaga auzoko Gaztetxokora mugituko dituzte saioak.

Azaldu dutenez, jarduera horien asmoa da «herria biziaraztea eta euskara plazarekin lotzea». Horretarako, ikuskizun originalak eta entretenigarriak prestatu dituzte; adibidez, irailaren 19an, uretatik lurrera egingo den bertso-saioa egongo da: bertsolariak Gasolinoan ontziratuta egongo dira kantuan, eta ikusleak, aldiz, ibaiertzean. Lehen lerroko bertsolari eta gai-jartzaileak «ur eta lur» geratzea da antolatzaileen xedea.

Iraileko lehen domekan, 5ean, Miren Narbaizaren MICE ikuskizuna egon zen. Hurrengo ikuskizuna irailaren 12an izango da, Unai Iturriaga eta Dani Fanogaz. Bertan, bertsolariak eta irudigileak paper zuriaren krisiari zuzen-zuzenean egingo diote aurre proposamen original horretan. Bukatzeko, hilaren 26an, Westfalia Txou System taldearen musika eta umore ikuskizuna egongo da. ◀

Getxo Ibarbengoa aparkalekua

Batez beste, 14 ibilgailuk erabili dute egunero aparkalekua

Urtebete baino gehiago igaro da Getxoko Ibarbengoa aparkalekua inauguratu zutenetik; ordutik, 5.111 autok aparatu dute bertan, BGPK argitaratutako urteroko txostenaren arabera.

Hiru urteko obren ondoren, 2020ko ekainaren 15ean inauguratu zuten aparkalekua. Azpiegiturak 295 plaza ditu, eta, BGPK emandako azken datuen arabera, egunero, batez bestean, 14 autok baino ez dute zerbitzua baliatu. Alderatzeko moduan, Leioako mota horretako parkingak 257 erabiltzaile izan ohi ditu egun bakoitzeko urte normal batean –2019ko datuak dira horiek; 2020-2021ean, pandemia garaian, 116 erabiltzaile murrizten da kopurua–. ◀

Plentzia *Isuskitzako Herri Lurrak* liburuaren aurkezpena

Plentziako herri-lurren berreskurapenaren liburua

Isuskitzako Herri Lurrak liburua altxor natural baten berreskurapenaren azken urratsa da; 2016an hasi zen ibilbidearen bilduma. Bertan, egindako lana azaltzeaz gain, Isuskitzako herri-lurren historia, bilakaera eta balioa azaltzen du Plentziako Herri Lurrak Elkarteak.

Iususkitzako herri-lurren biziberritzea elkarlan eta parte-hartze istorio bat da; Plentziako zenbait herritarrek, Udalagaz batera, ingurumena eta udal-jabetzako lursail publikoak berreskuratzeko egindako ekimena, hain zuzen ere. *Isuskitzako Herri Lurrak. Iragana eta etorkizuna* liburuan, orain arte egindako landa-lana eta ikerketak batu dituzte, arlo ezberdinetako bederatzi egileren ekarpenakaz. Bertan, biologia, historia edo ekologia bezalako alorretako ikerketen emaitzak aurki daitezke, Isuskitzako proiektuaren nondik norakoak zehaztasun osoz azalduz.

Plentziako Herri Lurrak Elkartea 2016an hasi zen lanean, herritar talde batek eta Udalak tamaina eta mota ezberdinetako 22 herri-lur inbentariatu zituztenean. Udal-jabetzako lursail horientzako erabilera posibleak ikeritzen hasi ziren, urteetan eukaliptoaren eta pinuaren baso-ustiapenerako erabili baitziren. Horientzako beste erabilera ekologiko eta sozialago bat emateko asmoagaz, Isuskitzan lanean hasi ziren, etxaldearen ondoko udal-jabetzako 15 hektareatan haritzak landatuz.

Bertan, artxibo historikoan XVIII. mendeko ordenantzetan oinarritutako haritzia birlandatzeko asmoa dute; bertatik ateratzen baitzen Plentziako ontzioletan erabiltzen zen haritz-egurra. Baso horrek onura handiak ekarriko lizkioke Plentziari eta ingurumenari: suteen arriskua nabarmen gutxitu, lurzoruaren aberastasuna hobetu, karbono-hustutegiak ugaritu, itsasoa elikagaiz hornitu eta euri-erauntsien eragin kaltegarriak murriztu, beteak beste.

Basoa haritzez birlandatzeko, Plentziako eskolako eta institutuko ikasleengana jo zuten, herriko belaunaldi gazteak ere proiektuan murgiltzeko. Hala, gazteek aritzen haziak landatzeaz arduratu ziren, gero Isuskitzako mintegietan jartzeko. Horretaz gain, urteotan zenbait auzolan eta ekintza antolatu dituzte, proiektuaren berri emateko eta herritarrak inplikatzeko helburuagaz.



«Liburu hau beste urrats bat da Plentziako Herri Lurrak Elkartearen proiektuan; izan ere, Isuskitzak oso historia luze eta interesgarria du»

JOKIN DE PEDRO
PLENTZIAKO HERRI LURRAK



«Isuskitzan lau proiektu ditugu, baina birekin hasi gara, lanerako ez garelako jende nahikoa. Laguntza gehiago beharko genuke»

JESUS SERRANO
PLENTZIAKO HERRI LURRAK

ISUSKITZAMENDIKO BASO JANGARRIA. Beste landa-proiektua da Isuskitzamendiko baso jangarri esperimentalarena. Aurten egindako esku-hartzean, tontorraren ingurua sastrakaz garbitu eta, Marta Zelaia paisajistaren irizpideak jarraituz, Hazien Sareak emandako hainbat fruta-arbola autoktono landatu dituzte. Hala, Isuskitzamendin espezie ezberdinek osatutako zirkuluak egin dituzte, nekazaritza-sistema orekatu bat sortzeko, ingurumenarentzako eta gizartearentzako errentagarria izango dena.

Horretaz gain, liburuan, Isuskitzako baserri batean jaiotako Josune Rotaetxe Arrizabalaga historialari eta geografoak lur horien azken mendeko historia kontatzen du, nola XIX. mendearen 50eko hamarkadan, Olagibel enpresariak lurra erosi eta Gipuzkoako kolonoakaz birpopulatu zuen nekazaritza eta abeltzaintza ustiapen emankorra sortuz. Gero, lur horiek saldu eta gaur egungo urbanizazioa eraiki zuten.

Liburuan beste hainbat pertsonen parte hartu dute: Mikel A. Lopez geologoak Abiña Meandroaren berreskuratze geobotanikoaren proiektua azaltzen du; Patxi Galék baso historiko didaktikoaren egitasmoa azaltzen du, mendizaletasunaren ikuspegitik; Iñigo Zarandona biologoak Isuskitzako herri lurren bioaniztasuna eta haren garrantzia deskribatzen du; David Crestelok Isuskitzako udal-partzelen jatorria eta pribatizazioaren nondik norakoak zehatz-mehatz azaltzen ditu; Jesus Serrano Plentziako Herri Lurrak Elkarteko kideak Plentziako Udalaren jabetzako herri-lurren berri ematen du, horien erabilerari buruzko hausnarketa bat mahai-gaineratuz; Mikel Serrano itsas-zientzialariak eukaliptoaren landaketek Butroi ibaiaren itsasadarrean duten eragina du aztergai; eta, bukatzeko, Neiker nekazaritza-ikerketak eta garapenerako euskal erakundeak Isuskitzako lurzoru mineraletako karbono organikoaren stockak monitorizatu ditu, eta liburuan ikerketak horien ondorioak adierazten dira. ◀

Larrubizi Karlos Aretxabaleta Txapel

Oasia

Horrela, bada, erlojuaren orratzen eta perretxiko magikoen esklaboak izan gara luzaroan... *Oh, I get by with a little help from my friends, mm I get high a little help from my friends.* Baliteke dena ametsetan gertatu izana. Horrela sinetsi nuen, behintzat.



Abuztu osoan bezalaxe, gaurkoan ere ilunabar euritsua dugu herrian, eta bestelako planik ez dugunez, nire gurasoen etxolara joateko gonbita egin diet lagun biri, bertan lasai asko edan eta drogatu gaitezkeelako. Konturatu orduko, joan den urtean Herbehereetatik ekarritako perretxiko magikoen dastaketarekin hasi gara, baina zapore garratzekoak direnez, aitzurra, Joe Cockerren biniloa lagun, ikasturtean zehar bizi izandako berriak kontatzen gaudelarik etorri zaigu, eta frin-faran, haizeak bultzatutako hostoak bagina bezala, gau magikoa martxan hasi da.

Bat-batean, nire ingurua goitik behera itxuraldatu da. Etxolako oholak desagertu dira, eta Saharako oasi baten erdian banengo bezala sentitu naiz, haima baten barruan. Ordulariaren orratzekin batera, objektuen izaera aldatuz doa, eta bake sentsazioa sekulakoa da. Horrelako batean, urlia eta sandia arretaz begira ditut, urregorritzko objektua banintz bezala, zelan edo hala nitaz jabetu nahiko balute bezala. Maite dut horrela begira nazaten, euren begiekin arropak erantzi diezazkידaten. Konturatu orduko, denak biluzik gaude, eta gure arropa guztiak balizko haimatik botata. Orduantxe, urliak lehenengo urratsa eman du, nire eskua emeki heldu eta bere titi artean jarri du ferekatu diezazkידan; dirudienez, nire

Joe Cockerren biniloa lagun, ikasturtean zehar bizi izandako berriak kontatzen gaudelarik etorri zaigu, eta frin-faran, haizeak bultzatutako hostoak bagina bezala, gau magikoa martxan hasi da.

atzamarrek izotz-pusken tankera hartu dute berarentzat, eta neure fereken premia sentitu du noizbait. Sandia, ordea, isil-isilean nigana hurbildu eta nire atzean jarri da. Samurtasun osoz belarri ostea musukatzen hasi zait, eta bestelako plazeretara abandonatu naiz. Minutuak aurrera doaz, eta gure oasiak aspaldi galdu du epeltasuna, dagoeneko sutan baikaude hiru lagunok. Ni, belauniko, urlia-ri alua zurruputzen nabilkio, nire mihi zoliak bere muxilaren tolesturen artean nakarrezko perla aurkituko duela jakitun. Bera garrasika dabil, atzamarrekin igurtziz bere alua, baina, badaezpada, nire burua ere irmoki heltzen du, plazerak ihes egingo diolakoan. Sandia bestelako zereginetan dabil, izan ere, aspaldi inguratu zitzaidan sexu bila; nire ipurdia berea da, eta, estasiarekin batera dabiltzan tximeletak lagun, barru-barruan sentitzen dut bere zakil tentea ekinaldi bakoitzean, harik eta ufaka nire barnean asaskatu den arte. Horrela, bada, biniloaren jira-biren eta perretxiko magikoen esklaboak izan gara luzaroan... *Oh, I get by with a little help from my friends...*

Behin errealityteratara itzulita, jazotakoaz galdengin diet lagunei, baina euren istorioak ez datoz bat. Baliteke dena ametsetan gertatu izana, perretxikoen ondorio ziur asko. Horrela sinetsi nuen, behintzat, handik eta egun batzuetara etxolako lurrean nakarrezko perla bat aurkitu nuen arte. ◀

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GetxoGas

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Naturaren behatokitik Xabier Buenetxea

Planeatzaileak edo harrapari planeatzaileak



Aurreko artikuluan belatzei erreparatu genien, eta, oraingo honetan, eguneko beste harrapari batzuk ikusiko ditugu; batzuk oso ezagunak, eta beste batzuk ez hainbeste, ez balitz dokumentalen eta kontsulta-liburuengatik. Batzuk urte osoan ikus daitezke; besteak, aldiz, urtaroaren arabera.

Gure eremuan, tamaina handieneko harraparien artean, ugariena eta ezagunena da Sagu-bilatzailea edo Zapelatza (*Buteo buteo*). Marroixka kolorekoa, paparreko zinta zuri oso bereizgarria dauka. Askotan ikusten da errepide bazterretako zutoinetan pausatuta. Pinudietan eta beste zuhaitzetan egiten du habia, eta araldian zirkuluak egiten planeatzen du, «miau» bat gogorarazten duen soinua eginez. Askotariko elikadura dauka, haratusteletatik eta autoek harrapatutako animalietatik hasita, ehizatzen dituen sagu txiki, narrasti eta intsektuetaraino. Urte osoa egoten da hemen.

Miru beltzak (*Milvus migrans*) ere elikadura-espektro zabala dauka, eta ibaiertzeko pinu eta zuhaitzietan egiten du habia. Udaldian etorri ohi da Uribe Kostara, eta martxotik ikusi daiteke, Afrikako negualditik itzultzen denean. Tonu marroi iluna du, ia homogeneoa, burua eta hegoak izan ezik. Bere bereizgarri nagusia da buztan urkilatua. Ezaugarri hori are deigarriagoa da bere senide Miru Gorrian (*Milvus milvus*). Horretan, oso urkilatutako isatsa nabarmentzen da. Gorri-laranja kolore deigarrikoa da, buruko eta hegoetako orban zuriak izan ezik. Eskualdean batez ere migrazio-pasabidean ikusten

Arrano Sugezaleak (*Circaetus gallicus*) buru handia dauka, ia hontzarena bezalakoa, hego zabal handiak ditu eta bereizgarria den behatze-posizioan egon ohi da, airean geldirik, hegoak astinduz, ofidioak bilatzen.

da, eta, noizean behin, ale negutar edo iragaitzazko bat ere ikus daiteke.

Udan, migrazio-pasabideetan egoten den beste espezie bat Arrano Txikia da (*Hieraetus pennatus*). Planeatzaile bikain hori harrapakin ugari elikatzen da: pagausoak eta beste hegazti ertain batzuk, untxiak, arratoiak, saguak, eta abar. Zelaletan eta eremu irekietan ikus daiteke, beti zuhaitzetatik hurbil, basotarra baita. Bi lumaje-fase ditu: argia eta iluna. Behetik ikusita, sabela zuri ikusten zaio, gaztaina koloreko hego ilunekin. Dortsaletik ikusita, antzekoak dira biak, eta sorbaldan «V» erako orban argi bat bereizten zaie. Inguruotan, beste espezia migratzaile bat dago, behetik zuria dena, baina askoz handiagoa: Arrano Sugezalea (*Circaetus gallicus*). Horrek buru handiago du, ia hontzarena bezalakoa, hego zabal handiak ditu eta bereizgarria den behatze-posizioan egon ohi da, airean geldirik, hegoak astinduz, ofidioak bilatzen.

Zuria ere bai, baina txikiagoa, Mirotx Zuria-
ren arra (*Circus cianus*) dugu. Udako espezie hori, duela hogeit urte, ohiko habiagilea zen inguruotan; inguruko otadietan ikus zitekeen, Unbe mendiaren magaletan bereziki. Gaur egun, bikote zehatz bat baino ez da geratzen, eta migrazioan bakarrik detektatu dugu. ◀

Probatu zure maila

Prueba tu nivel

Euskera nivel muy inicial

PINTXO BAT, MESEDEZ!

Euskera nivel algo más avanzado

Etxeko bexamel fin-fina

Egurrezko txotxa

Baserriko ogia

Getxoko euskaltegietan ez dugu kroketa-rik, baina bai behar duzun euskara maila.

En los Euskaltegis de Getxo no tenemos croquetas, pero sí el nivel de euskara que necesitas.



Zientzia etxeko atarian Riki Mutuberria Zabala

Kostaldeko Bioblitz-a. Zer demontre da hori?

Nor ez da txikitan itsasbeheran dauden arroka eta putzuetako arrain edo karramarro txikien bila ibili? Ziur hori izan dela naturalista gisa izan dugun lehen esperientzietako bat. Gaurkoan, biodibertsitatea ezagutzeko modu berri bat aurkeztuko dizuet: Kostaldeko Bioblitz-a.

Blitzkrieg (tximistargi gerra) terminoa Alemaniarrek Bigarren Mundu Gerran erabili zituzten eraso azkar eta sendoak izendatzeko erabili zen. Bioblitz bat inbasio azkar eta sendoa da, baina natura-gunekoak, biodibertsitatea eta aberastasun ekologikoa ezagutzeko eta katalogatzeko helburuarekin.

Normalean, Bioblitz batean zientzialari profesionalek zein zaleek parte hartzen dute. Lehendabizi aztertuko dugun gunea mugatu behar da, horretarako, gure hondartzak eta hurbil dauden mendi-zelaiak oso aproposak dira. Hasteko, ordua eta iraupena zehaztu beharko ditugu, parte hartzaileak gonbidatzeko. Oro har, ordu edo egun batzuk irautea dute.

Helburu asko izan ditzake; nagusia: naturarekiko harremana sendotzea eta ondo pasatzea, natura-guneen biodibertsitatea eta aberastasun ekologikoa ezagutzen eta katalogatzen dugun bitartean. Horretarako, arruntena da parte hartzaileak talde txikietan banatzea eta fauna, flora, geologia eta ekosistemak aztertzeko ibilbideak egitea.

Herriar Zientzia deituriko mugimenduari esker edonork parte har dezake jarduerotan. Zientzialariak eta naturan adituek aurkituta-



Kostaldea sakon ezagutz

Kostaldeko Bioblitz batean likenak, goiko landareak, itsas algak, lehorreko ornogabeak, itsas ornogabeak, arrainak, hegaztiak, anfibioak, narrastiak eta ugaztunak aurki ditzakegu. Ekimenera bertaratuko direnek, kostaldearen historia naturala xehetasunez ikusteko eta ezagutzeko aukera izango dute, baina gogoratu errespetuz egitea eta izaki bizidunak ez kaltetzea.

ko bizidunen buruzko datu harrigarriak partekatzen dituzte.

Teknologia berriak ere lagungarriak izan daitezke Bioblitz batean, natura zainduz eta errespetuz, biodibertsitatea identifikatzeko, katalogatzeko eta kontserbatzeko aukera ematen duelako. iNaturalist doako aplikazioarekin espezieen identifikazioa lor daiteke argazkien bidez. Gainera, aplikaziora igotzen ditugun datu horiek edonork erabil ditzake. Horrek aldaketak edo mehatxuak detektatzeko balio du; esate baterako: bertako espezieen desagertzea edo espezie inbaditzaileen agertzea.

Biok Getxoko irabazi asmorik gabeko elkarteak eta Iruñeko Terrabiota elkarteak lagunek gure kostaldeko lehen Bioblitz egingo dugu hilaren 25ean, Europako 2021 Bioblitz ekitaldiarekin bat etorritik. Helburua da etorkizuneko Bioblitz oinarriak ezartzea, hurrengoetan herritarrak, zientzialariak, ikasleak eta beste erakundeak gonbidatu ahal izateko.

Proba pilotu horretan, zientzialari edo aditu gisa parte hartu nahi baduzu, idatzi helbide honetara: hello@biook.org edo info@terrabiota.org. Ekimen horren emaitzak eta etorkizuneko deialdien berri izateko ere, jarraitu Biok eta Terrabiotaren sare sozialak. ◀

JUAN MARI

Harategia Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan:
944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Euskarari, atera kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Hizkuntzaren barrunbeak



Gure hizkerak badu bere tokia mendebaldeko euskalkiaren barruan. Nola jakin zer nolako harremanak dituen euskalki bereko beste hizkerekin? Hizkuntzak ematen dizkigun hainbat ezaugarri aztertuz, mendebaldeko dialektoaren barne antolakuntzaz arituko gara.

Gure hizkerari buruz ari garenean, ezaugarri exotiko eta bitxiak datozkigu burura gehienetan. Herrien arteko hizkuntza-aldakortasun txikiez aritu gara sarri, eta gure eskualdeko zenbait hitz edo esamolde berezi ere ikasi ditugu. Baina, gurea bezalako hizkera zehatz bat aztertzerakoan, ezaugarri bereizleak ez dira kontuan hartu beharreko bakarrak. Ikerlariek dialektoak sailkatzerakoan, hizkerak multzokatu edo bereizteko baliagarriak diren ezaugarriak arakatzan dituzte, harakinek idi osoa piezaz pieza zatitzeko duten trebetasun berdintsuagaz.

Erraz antzeman dezakegu Uribe Kostako hizkera «mendebalekoa» deitzen diogun dialektoaren barnean kokatzen dela, zehazki, ipar-mendebaldeko ertzean. Mendebaleko euskalkiaren eremu honek Bizkaiko lurralde zabalak hartzeaz gain, Gipuzkoako Deba eta Arabako Aramaio ibarrak ere hartzen ditu. Hara! Honek esan nahi al du, Barrikan eta Oñatin hizkera berbera erabiltzen dela? Inondik inora. Hizkera erabat ezberdina darabilten arren, Sopelako eta Oñatiko bizilagunek elkarbanatzen dutena dialektoa da.

Bada mendebaldeko dialektoan orokorra eta nabaria den ezaugarri bat: **-gaz** sozatiaboa



Mendebaldeko euskararen banaketa, Koldo Zuazok egindako maparen arabera.

deritzoguna. Harakin batek bere auzoko gizona ikusi duela adierazteko, «**gizonagaz topo egin dot**» esango liguke mendebalde osoan zehar, Sopelatik Oñatira. Beraz, ezaugarri honek dialekto handi bat sailkatzeko balio digu, mendebaldeko hizkera guztiak bateratzen dituen ezaugarria delako.

Ezaugarri orokor hau, ordea, nahaspilatu egiten zaigu harakinak bost gizon ikusten baldin baditu. Uribe Kostatik Busturialdera, harakinak berdin esango digu «**gizonakaz topo egin dot**». Durangaldetik Deba ibarrera, ordea, bestelako zerbait entzungo dugu: «**gizonakin topo egin dot**». Hala, ezaugarri bateratzaile genuen hori, bereizle bihurtu zaigu bat-batean.

Funtzio biak betetzen ditu gure ezaugarri honek: batetik, mendebalde osoan entzungo dugu **-gaz** marka singularrean, mendebaldeko dialektoaz ari garela antzemateko balioko diguna; bestetik, **-gaz** eta **-kin** ditugu lehian pluralean, mendebaldeko dialektoa osatzen duen pieza handi hori bitan banatuz.

Azken batean, harakinak idiaren barrunbeetan barrena haragirik preziatuenak ateratzen dituen bezala, hizkuntzak bere barrunbeetatik gure hizkera sailkatzen laguntzeko ezaugarri preziatuenak erakutsi dizkigu. ◀

**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3
94 430 23 45

Algorta

Tolletxe 1
94 460 27 41

Bizitzaren lekukotasunak biltzen

Plasentia de Butrón museoko etnografia taldeak urteak daroatza Plentzia, Gorliz, Barrika, Lemoiz, Butroe eta Gatika inguruetako argazki zaharrak batzen. Webgune bat sortu eta jardunaldi historikoak antolatzeaz gain, herriari bere historia ezagutzeko eta kontatzeko aukera eman diote. Horrela, antolatu dituzte jardunaldietan, argazki zaharrak batu eta erakustez aparte, argazkien protagonistak zein lekukoak gonbidatu dituzte bizitakoa kontatzeko. Hona hemen haien lanaren erakusketa txiki bat; gehiago ikusi gura baduzue, segi haien webgunera, eta animatu argazkiak eta lekukotzak gehitzen: www.etnoplentzia.com.

ARGAZKIAK: ETNOPLENTZIA ►













Lehen/Orain **Barrika**



ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



Uribitakora



TESTUA
Daniel de
Miguel Avecilla

DOINUA
*Bart ametsetan
amona xar bat*

ARGAZKIA
Ander Zarraga

Ispilu-mundua

Putzuak heldu dira hirira,
putzuak heldu basora.
Uda guztia pasatu dugu
lainotik eta lainora,
hainbeste euri uda garaian
ezin dezaket gogora...
udazkenean, berandu baina,
eguzkia helduko da?
Sasoi batetik hona munduan
dena dago hankaz gora.

Ispiluaren munduan, beraz,
dena dago alderantziz,
eskubideak: unibertsalak,
eta jende mota anitz;
jende guztiak ez du lekurik
Ispilu-munduan, berriz:
torerorik ez, eta zezenak
basoetan libre dabiltz;
hemen hobeto bizi gintezke
dena holakoa balitz.

Baina zerbaitek gure artean
hartu omen du indarra,
eta norbera bizi da gero
balitz bezala bakarra;
bazterrak garbi bitez euriak
egin beza barra-barra,
aurreiritzi barik bidean
gazte-zaharra, eme-arra...
bakean bizi nahi dugu eta
beste bati jo adarra.

ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

«Algorta kaleko musika» egitasmoa 2003-2018 arteko musika giroa gogoan



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: ALGORTAKO KALEKO MUSIKA ▶

Aurrekoan, Algortako Txiki Otaegi enparantzan banku zatar batean eserita nengola, lainopean nola ez, nerabe traperero batzuk gurutzatu zuten gure garai bateko erreinuak, eta bat-batean, nostalgiak harrapatu ninduen... Garaiak aldatu dira, eta musikak inguratzen duenaren joerak ere. Zintzoki, ez dakit zeintzuk izan ziren edo diren hobeak; hala ere, etxeko apaletan dudak Puzkarra Records-en kopia, urtez urte, denbora pasata ere, guztien erregina izaten jarraituko duela sumatzen dut...

Zer da «Algorta kaleko musika»? Hasiberri dagoen proiektu bat da. Kaleko musikaren giroan ibili ginen algortarren bizipenak islatu nahi ditugu liburu batean; 2003tik 2018ra arte bizi izan genuena, hain zuzen ere.

Nondik dator ideia? Askotan komentatu dugu orain interneten daukagula dena, eta horrela da. Baina, askotan, sarera igotzen den informazioa heltzen den moduan desagertu edo sarearen handitasunean galdu egiten da. Liburu batekin ez da hori gertatzen. Liburua, agian, zure etxeko apal batean hautsa hartzen egongo da, baina hor dago eskura beti; behar duzunean berriro hartzeko.

Zergatik orain? Agian, 40 urteko krisialdian sartuta gaudelako batzuk; agian COVID-19ak

Zer eskatzen diozue herritarrei?

«**Materiala, hau da: argazkiak, kartelak... Gauzatxoak jasotzen hasi gara jada. Urriaren amaieran, lortu dugun materialarekin liburuari itxura ematen hasiko gara. Beraz, baten batek materiala badauka eta lagundu nahi badu algortakalemusi@gmail.com-era bidaltzea eskatu nahiko genioke.**

Eskerrik asko. Ez gara inoiz hilko!»

eragina izan du... Seguruenik bien arteko nahaste bat da. Normaltasun berria ez zaigu gustatzen, eta nostalgia piztu zaigu. Konturatu gara pasatako urte zoriontsu horiek itzuliko ez direla. Punk-oi talde asko sortu dira herrian, hala nola MadSkins, Ukabilkada, Erasoka, Smoking Barrels eta Garraixika, eta, horren ondorioz, talde asko etorri dira urteotan herrira jotzera. Tabernetan gure musika entzuten zen, eta gazteen janzkeran-eta ere nabaria zen aldaketa. Ordura arte, gure giroko talde bat Algortan ikustea oso arraroa zen, eta gure musika tabernetan entzutea are gehiago.

Zelan ikusten duzue Algortan herriko musika eszena eta herriko giroa musikari dago-kionez? Superbibentzia. Meritu handia dauka Algortan talde bateko kide izateak edo kontzertuak antolatzeke ardura izateak. Ez dago entseatzeko lokalik, ez dago kontzertuak emateko aretorik eta, orain, pandemiarekin, kalean ere ezin da jo. Zorionez, gaztetxea existitzen da, eta Barne Barnetik bezalako kolektiboek traba guztien gainetik basamortuan ura ateratzen jarraitzen dute. Liburuak horientzako guztientzako omenaldi bat izan nahi du, eta datozen gazteei indarra emateko balio badu, primeran. Eurena da oraina eta etorkizuna.

Proiektu honetaz harago, zerbait gehiago duzue buruan etorkizunari begira? Egia esanda, momentuz, liburuarekin nahiko daukagu. ◀



Leticia Canales Surflari profesionala

«Orain, surflarioi atleta bezala ikusten gaituzte»

Europako txapela jantzi ondoren, Leticia Canales mundu osoan arituko da *Challenge Series*-etan, munduko surflari onenakaz lehiatzen. Ez da ibilbide erraza izan, baina sopoloztarrak bere ohiko energia eta baikortasunagaz ekin dio erronkari. Horretaz gehiago jakiteko eta surfaren etorkizuna nola ikusten duen ezagutzeko, beragaz egon gara, urruneko olatuak zamalkatu aurretik.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ARGAZKIAK: **ISA** ►

Uztailean Europako txapela jantzi zenuen. Amets bat bete duzu ala zerbait handiagoa lortzeko beste pauso bat da? Denboraldiaren helburuetako bat zen, eta bete dugu. Horrekin batera, gure helburua zen Olinpiar Jokoe-tara joatea; ez dugu lortu, baina beste helburua, Europako txapela, lortu dut behintzat. Hilabete bat soilik pasatu da Jokoe-tako sailkapena lortu ez nuenetik, eta, orduan, motibazioa nahiko behera joan zitzaidan arren, uste dut titulu hau indargarri baten modukoa izan dela; azken finean, emaitza oso polita da, zailtasun aldetik Europako Txapelketa lortzea ez delako erraza, eta, orain arte, beti bigarren edo hirugarren geratu naizelako. Horrek konfiantza asko eman dit, eta indartuta atera naiz. Uste dut horri esker mundura zabalduko naizela, eta emaitza onak lortzen jarraitzeko motibazioa lortu dudala.

Orain, *Challenge Series* lehiaketetan parte hartuko duzu; zein izango da zure hurrengo helburua? Orain, alderik politena dator: mundura zabaltzea. Aurreko urtean, Sydneyko *Challenge*-ean hirugarren postua lortu nuenean, oso sasoi onean nengoan. Momentu horretan, pandemia hasi zen, eta etxean gelditu behar izatea oso gogorra izan zen niretzako. Hala ere, 2020an eskuratu nuen emaitza horrek aurtengo sailkapenerako balioko dit, eta, horregatik, uste dut aukera asko ditudala Lehen Mailara

Europako txapeldun

«Indargarri baten modukoa izan da, Europako Txapelketa lortzea ez delako erraza; orain arte, beti bigarren edo hirugarren geratu naiz. Uste dut horri esker mundura zabalduko naizela, eta emaitza onak lortzen jarraitzeko motibazioa lortu dudala»

heltzeko. Beraz, albiste oso onak etorri dira, eta, orain, dena emateko entrenatzen aritu naiz, irailetik aurrera txapelketan parte hartzen arituko naizelako. Hasteko, Kaliforniara (AEB) joango naiz, Huntington Beach-era, eta hortik Europara bueltatu Hossegor (Frantzia) eta Ribeira d'Ilhas-en (Portugal) beste lehiaketa bi izango ditudalako. Dena ondo badoa, eta sailkapenean goian mantentzen banaiz, Hawaiin amaituko dut urtea.

Egiten dituzuen lehiaketetan ez dituzue beti olatu perfektuak izaten; askotan nahi-ko pobreak izaten dira. Nola konpontzen zarete baldintza horiekaz lehiatzeko? Olatuak txikiak direnean ez da batere erraza izaten. Entrenamenduetan ez dago arazorik, baina txapelketa batean ez da justua, manga bakoitzean olatu on bi hartu behar dituzulako, eta beti ez da ondo suertatzen. Adibidez, Pantinen, final-laurdenetan olatu on bat hartu nuen, baina bigarrena falta zitzaidan, eta itsasoa bare-bare geratu zen. Lehiaketaren alde bat da, eta surflari profesionala izan nahi duzula erabakitzen duzunean horrelakoak ere gerta daitezkeela kontutan izan behar duzu. Surfa naturan egiten den kirol bat da, eta ezin duzu erabaki noiz egongo diren metro biko olatuak. Hala ere, orain olatu artifizialak egiten dituzte, baina gure mailan ez dago txapelketarik horrelako instalazioetan. Beraz, ikus-

leentzako hain ikusgarria izan ez arren, guk % 100a ematen dugu beti.

Probatu dituzu olatu artifizialak? Aspaldi probatu nituen, baina ez dut aukera izan berrienetara joateko. Uste dut oso leku ona dela teknika hobetzeko, sinpleagoa delako; itsasoan berdinak diren olatu bi hartzeko hiru edo lau ordu egon behar zara uretan. Beste alde batetik, igerilekuen kontuari esker, geroz eta maniobra berritzaileagoak egingo direla uste dut, surfa oraindik ikusgarriagoa bilakatuko dela esango nuke. Bilakaera izugarria izango da, eta hori ikustea eta horren parte izatea ikaragarria da.

Urte asko daramatzazu maila altuan lehiatzen; zein da gakoa? Surfean hainbat urtez zerrendaren goiko aldean egotea oso zaila da, eta niretzat Europako Txapelketa sari baten modukoa da. Gainera, amets bat bete ahal izango dut, surflari onenekin arituko naizelako lehiatzen: Carissa Moore, Stephanie Gilmore, Bronte Macaulay, Courtney Conlogue... nire idoloak azken finean. Hemendik aurrera nire aurkariak izango dira, beraz, beste pauso bat da, eta nire burua ere beste leku batean ikusten dut.

Presio asko eragiten du horrek guztiak zuretzako? Ez horixe! Izatekotan, presio ona. Gogo handiak dauzkat maila horretan lehiatzeko.

Orain dela gutxi muletakaz ikusi zintugun, eta lesio nahiko larriak izan dituzu zure ibilbide profesionalean. Kirolari askorentzako gainbehera horrela dator, baina zuk hor jarraitzen duzu. Zein da sekretua? Ez da bate-re erraza izan, baina oso burugogorra naiz, eta nire txikitako ametsa lortu nahi dut; hori eskuratu arte hor arituko naiz. Etxean ere badakite, eta babesten eta laguntzen naute; niretzako hori da garrantzitsua. Lesio gogorak izan ditut, asko momentu txarrenetan, baina beti indartsu ateratzea lortu dut, eta egoera horietatik ere asko ikasi ahal izan dut: zer nahi duan edo zer ez, norekin lan egin nahi duan... Azken finean, kirolariaren ibilbidearen parte dira. Bestalde, lesionatuta egon naizenean nire berezko izaera galtzen dut nolabait; nire burua surflari bezala ikusten dut, eta, etenaldi horietan, errutina bertan behera geratzen den arren, daukadan jomuga horri eusten diot.

Goi mailako kirolarietan, psikologia ere oso garrantzitsua da. Zure kasuan ere bai? Bai, hala da. Zortea izan dut, eta hiru urte daramatzat Josean Arruza kirol psikologoarekin lanean. Berarekin, nire kirol ibilbideko emaitzarik onenak lortzeaz gain, izan ditudan lesio



Canales, Nazioarteko Surfing

Olatu artifizialak

«Geroz eta maniobra berritzaileagoak egingo direla uste dut, eta surfa oraindik ikusgarriagoa bilakatuko dela esango nuke. Bilakaera izugarria izango da»

Psikologia

«Psikologiaren eragina oso garrantzitsua da. Hori ondo eramatea abantaila bat da nire ustez. Lehen, mugikorra itzali eta aste bi egoten nintzen inkomunikatuta»

gogorrenetatik oso ondo atera naiz. Beraz, konfiantza aldetik beti pertsona onekin egon naiz, eta beti eskaini didate laguntza. Hori eskertzekoa da, alde psikologikoa oso garrantzitsua delako; azken finean maila oso altua dago, eta horregatik alde psikologikoaren eragina oso garrantzitsua da. Hori ondo eramatea abantaila bat da nire ustez. Lehen, telefono mugikorra itzali eta aste bi egoten nintzen komunikaziorik gabe, baina hori kudeatzen ikasi dut.

Surflari profesionalei nola baldintzatzen dizue iragarle bat izateak? Gure mailan surfi-ragarle bat izatea oso zaila da, oro har, enpresek orain ez daukatelako lehen zeukaten ditua. Aritz Aranburu, Hodei Collazo eta Eneko Acero bezalako surflariak gorenean zeudenean diru asko zegoen. Laguntza asko zeukaten, baina nire adineko surflariei gertatu zaiguna da gorenean egon arren ez dugula laguntza hori jaso, krisi ekonomikoan sartu ginelako eta surfeko enpresa askok porrot egin zutelako. Azken finean, txapelketa bate-ra joateko seguruak, bidaiak, taulak, entre-



Elkarteak (ISA) 2021ean El Salvadorren antolatutako zituen World Surfing Games jokoetan. ISA/BEN REED

natzaileak... ordaindu behar ditugu, eta askotan ez da erraza izaten. Orain, gure sponsor handienak erakundeak izaten dira, adibidez, Basque Team, Bizkaiko Foru Aldundia... Eta aurten Sopelako Udala ere sartu da. Horiei esker dirua batzen goaz, baina oso zaila da, nahiz eta emaitzak izan. Nik aurten Sooruz enpresa frantziarrarekin ere sinatu dut, baina, oro har, BT eta Sopela dira fidagarrienak nire kasuan. Hala ere, zortea dudala uste dut, azken emaitza honi esker iragarle potoloren bat ere etortzea espero dudalako. Horrela lasaiago sentituko nintzateke, urtea amaitzean txapelketara joatea bermatuta izango nukeelako. Azken finean, ni autonomia ere banaiz, eta beste pertsona batzuek dituzten gastuak ere ditut. Bestalde, iragarleei ez zaizkie emaitzak hainbeste arduratzen, garrantzia gehiago ematen diote itxura kontuari. Beraz, hor ere eztabaida polita dago, eta, noski, onena biak izatea da: emaitza eta itxura ona.

Nabaritzen duzue aldea Ameriketako Estatu Batuetako edo beste herrialde batzuetako



Pantin Classic

Uztailaren 3an, Valdoviñon (A Coruña, Galizia) egin zen Abanca Pantin Classic Galicia txapelketan, final-laurdenetako emaitzagaz nahikoa izan zuen surflari sopoloztarrak World Surf Leagueko Qualifying Series zirkuituan Europako surflari onenaren izendapena jasotzeko.

surflariei ematen dieten laguntzaren artean?

Esango nuke arrazakeri pixka bat dagoela gai horretan. Ez da gauza bera frantziarra izatea edo espainiarra edo portugaldarra. Gu azkenak gara beti. Zentzu horretan, portugaldarrek oso ondo egin dute, surfeko enpresa garrantzitsu guztiak hartu dituztelako; aldiz, gu beti gaude Frantziara begira. Ni ere horrelako enpresetan egon naiz, eta emaitza hobeak izan arren frantziarrek beti jasotzen zuten gehiago. Gero, Europatik kanpokoa beste mundu bat da, AEBetako eta Australiako surflariak benetako profesionalak dira. Guk ez daukagu soldatarik, eta gure kirolean hori beharko litzateke, nahiz eta ez dakit nondik atera daitekeen. Azkenean, guk ere gure herria zabaltzen laguntzen dugu, adibidez, nik Sopela marka daramat soinean, eta herriaren irudia ere gara.

Aurten, surfa Olinpiar Jokoetan egon da aurreneko; zer ekarriko dio horrek kirolari?

Ikusgarritasuna batez ere. Atleta bezala ikusi gaituzte, eta hori eskertzekoa da, azken finean, guk ere egunero lau orduz entrenatzen garelako gimnasioan; baina hori ez da ikusten. Gainera, surfa askoz ere profesionalagoa bihurtu da. Lehen, Mundakara txapelketak ikustera joaten nintzenean, babesle nagusia garagardo marka bat zen, eta surflariak uretatik ateratzen zirenean hor zeukatzen garagardo bat itxaroten. Hori orain ez da horrela; irudi aldetik ere askoz formalagoak izan behar gara.

Oso deigarria da Euskal Herrian, baina batez ere, Sopelan dagoen surflarien maila altua. Zergatik?

Uste dut hori lehiakortasun handia egon delako izan dela. Zarautzen modukoa dela esango nuke: maila oso altuko jendea igaro da hemendik, eta uretan ere lehiakortasun handia dago olatu onak hartzeko. Surfean aritu naizenean beti egon naiz surflari nagusiekin, eta adibideak izatea beti bultzatu nau nire barruko onena ateratzen. Eneko Acero eta Iker Fuentes bezalako surflariak gorenean ikus-teak motibatzen zaitu zu ere hor egotera.

Geroz eta jende gehiago ikusten da olatuak hartzen. Uste duzu surfa masifikatzen ari dela?

Baietz uste dut, eta, horregatik, esango nuke geroz eta olatu artifizial gehiago erabiliko direla. Guretzako entrenamendu on bat egitea oso zaila da uretan 100 pertsona badaude. Hau ondo ulertu behar da: nire ahizpa ere surflaria da, baina disfrutatzeko, eta hondartzan dauden pertsonen ere horretarako egiten dute; eskubidea guztia dute horretarako. Gu, aldiz, errendimendua ari gara bilatzen, baina ez ditugu tresnarik onenak, eta horrela oso zaila da hobetzea. ◀



Bizarra lepoan?

Gogoko duzu **heraldika**? Berba, behintzat, hizkuntza indoeuroparretatik heldu zaigu. Latin arruntean *heraldus* hitzak armen erregea esan nahi zuen. Frantsesez *hérald* eta gaztelaniaz *heraldo* hitzek, berriz, mezularia, iragarlea esan nahi zuten. Zeren iragarle, baina? **Behinola**, gerrako kontuena. Handik, gero, heraldika sortu zen. Eta gaur egun, **armarriek leinuen**, **ahaideen** eta gertakarien berri ematen digute; jatorria eta ezaugarriak, azken batean.

Gaurko honetan, Getxoko armarrarian zentratuko gara. Zorionez, euskara dauka azalean: *Kaltea dagianak, bizarra lepoan*. Esangura, baina, ez da beti argi egon. Horretaz jabetzeko, irakurri baino ez dago Evaristo Bustinza *Kirikiño* euskaltzale **errimeak** eman zuen azalpena: *Egurraz **narrua** gogor jotzen danielan, azalak bere leuntasuna galtzen dau, azala urratu egiten da **unan unan**, eta urratuen ertzetan **atz-bizarrak** lakoxe **azaltxatalak jagiten dira** zori ete da «lepoan bixarra?»* Zorionez, geroago Julio Urkixo eta Luis Elizalde euskaltzainek esanahi **arteza** topatu zuten, non eta orduko gaztelanian: «*Traher la barba sobre el hombro*». Azalpena ere aurkitu zuten iturri berean: kaltea egin duen gaizkilea atzera begira ibiltzen da beti, harrapatuko duten beldurrez.

Eta armarrira bihurtuta, hitzezko mezu hori iruditan islatuta daukagu: otso batek hildako **artxo**a daroa ahoan, eta atzera begira dago, kaltea egin baitu. Baina zer dela eta kontua, noizbait hitzaren eta irudiaren arteko kate hori eten egin da, egungo armarrarian otsoa aurrera begira ageri delako. Anekdotak: behin udaletxera joan nintzen galdetzeraz zergatik egin zuten irudi aldaketa hura, eta ea ez ziren ohartu irudia aldatzean (otsoa aurrera begira jarrita) hitzezko mezuak zentzua galtzen zuela. Eta erantzuna mundiala izan zen: diseinatzaileak esan du atzera begira jarrita oso zikin eta nahasi geratzen zela irudia. Dirudienaz, Andra Mari elizako **atalburuko** harrizko armarrarian otso gaizkilea zizelkatu zuen **harginak** ez zuen horrelako arazorik izan orain dela zenbait mende.

Ea noizbait hasierako irudi zuzena berreskuratzen dugun! ◀



Berba azoka

Heraldika

Armarrien sinbologia aztertzen duen jakintza.

Behinola

Behiala, antzina.

Armarri

Leinuen, ahaideen eta haien arteko gertakarien berri ematen duen ezkutu moduko irudia.

Leinu

Familia bateko belaunaldien segida, familia bateko aurrekoen eta ondorengoen multzoa.

Ahaide

Senidea, senitarte.

Errime

Trebea, irmoa, sutsua.

Narru

Larrua, azala.

Unan-unan

Tarteka-tarteka.

Hatz-bizar

Eskuetako azazkalen alboetan ateratzen den azal tiratxo (gaztelaniaz, *padrastro*).

Azal txatal

Azal zati.

Jagi

Altza(tu).

Arteza

(adj.) zuzena.

Artxo

Bildotsa.

Atalburu

Ateburua, atearen goialdea.

Hargin

Eraikuntzarako harria lantzea ogibide duen pertsona.

Hezkuntza

hiruka

Gehigarri berezia

174. zenbakia

2021eko iraila

Aukerak zabaltu etorkizunari



**GAUR LANA PROIEKTUKA EGITEKO
ESPERO ZENUEN PROPOSAMENA**

Egin **klik** eta piztu ideiak!



Ezagutu proiektua: klik.ibaizabal.com

IBAIZABAL

Ikasturte berria, zelakoa?

Pandemiapean egongo den bigarren ikasturtea hasi berri da gurean. Kontuak horrela, joan den urteko neurriak mantenduko dituzte ikastetxeek.

U daldiko oporrak amaitu dira, ikasleenak behintzat; izan ere, irailaren hasieran ekin diote 2021-2022 ikasturtari Uribe Kostako eskolek, baita Hego Euskal Herriko ikastetxe guztiek ere. Hala, daborduko eskolara itzuli dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta batxilergoko ikasleak.

Oraingoan ere, aurrekoan bezala, koronabirusari aurre egiteko neurriak baldintzatu dute eskolen jarduna; izan ere, Hezkuntza Sailak baieztatu duenez, oraingo protokoloan ez dago aldaketa handirik joan den ekainean onartutako protokologaz alderatuta.

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasgeletan hiru eta bost ikasle arteko lantaldeak osatu ahal izango dira, betiere musukoa eraman da; elementu hori derrigorrezkoa izango da eskolan, uneoro. Zehazki, Lehen Hezkuntzan lau edo bost kideko taldeak osatu ahal izango dira; DBHn, berriz, hiru edo lau ikasleko taldeak osatuko dira lehen eta bigarren mailan. Ildo horretatik, DBHko hirugarren eta laugarren mailetan eta gainerako hezkuntza-etapetan pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia mantendu beharko da.

Halaber, honakoak dira ikasturte berriari begira landutako protokoloen oinarritzko beste jarraibide batzuk: segurtasun-distantzia gordetzea, eskuak maiz garbitzea, ikas-



Joan den urteko babes-neurriak ekin diote ikasturte berriari. HODEI TORRES

Maskara

derrigorrezkoa 6 urtetik gorako ikasleen artean.

1,5 m

segurtasun-tartea gorde; lantalde iraunkorrak egin ahal izango dira, mailaren arabera, 3-5 pertsona artekoak.

gelak aireztatzea, maskara erabiltzea eta kontaktak mugatzea). Testuinguru horretan, lantaldeek kide berdinak jarraituko dute, gutxienez 10 egun baino gehiagoko oporraldia izan arte.

IAZKO BALIABIDE GEHIGARRIEI EUTSI. Joan den ikasturtean pandemiari aurre egiteko jarritako baliabide gehigarriak eustea eskatu dute guraso elkarteek eta sindikatuek. Ildo horretan, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak adierazi du ikastetxeek iazko baliabide ekonomiko «berberak» izango dituela aurten, hau da: 200.000 euro.

JOSE ANTONIO AGIRRE EUSKALTEGIA



2021-2022
Matrikula zabalik



94 460 66 71
idazkaritza@jagirre.eus
www.jagirre.eus

HABEK diruz lagundua



+16 urte/años

Maila guztiak, goizez eta arratsaldean.
Todos los niveles, por la mañana y por la tarde.

Larunbatetan/ sábados

B1, B2 eta C1.

6-16 urte/años

Astelehen eta asteazkenetan edo astearte eta ostegunetan.
Lunes y miércoles, o martes y jueves.
17:30 - 19:00

Bulego ordutegia/ horario de oficina

9:30 - 13:30
17:00 - 20:00





C1+ ikastaroaz gainera, A1etik C2ra arteko maila guztiak eskaintzen ditu Getxoko Udal Euskaltegiak.

Getxoko Udal Euskaltegiak eskaintza berri bat sortu du: C1+ ikastaroa

Ikastaro berri bat eskainiko du Getxoko Udal Euskaltegiak hastear dagoen ikasturte honetan: **C1+**. Arduradunek azaldu dutenez, C2ko ikas-prozesuaren hasieraren abiapuntua izan daiteke hori, edo prestakuntza osagarria C2 agiriaren beharrik izan ez baina, trebakuntzan, gizartearen edozein arlotan aritu gura edo behar duenarentzat.


Euskaltegiko arduradunek diotenez, C1 maila lortuta, euskaraz aritzeko gaitasuna lortzen da bizitzan burutu beharreko esperientzia gehienetarako. Hala ere, askotan, euskaraz bizi izandako esperientzia mugatua izan ohi da, eta esperientzia hori zabaltzea da ikastaro berri honen helburua: «Herritarra gizarte-taldeetan ziurtasunez eta kalitatez komunikatzeko gai izatea, adibidez, norberaren bizi-esperientziak kontatzeko, sentimenduak adierazteko, azalpenak emateko eta iritziak partekatzeko, besteak beste».

Baina, nolakoa izango da eskoletako dinamika? Bada, unitateka antolatuko dituzte eskolak, helburu zehatzetan banatuta.

Unitateetan, gainera, bermatuta egongo da euskaraz egiten den kulturaren ezagutza. Halaber, helburu zehatzei erantzuteko ikuspegi zabala eskainiko ditu eskolak, ikasleek askotariko gaiak landuko dituzte-eta. Ikas-prozesuan, baina, ikasleak berak autonomia izan beharko du lortuz doan gaitasunak praktikan jartzeko; hau da, egunez egun, gizarteak eskaintzen dizkion aukeretan erabili beharko du, erosketak egiterakoan, lagun artean edota lanean bertan, besteak beste. Dena dela, irakasleak hizkuntza-gaitasuna garatzeko beharrezkoak diren tresnak eskainiko dizkio ikasleari, horrek bere garapen-bidean erabil ditzan.

NOLAKOA IZANGO DA IKASTAROA? Asitean, lau ordu gelan izango dira, aurrez aurre, baina, gainera, ikasleak beste lau ordu eskaini beharko dizkio ikas-prozesuari bere kabuz. Kontuak horrela, orotara, ikastaroa 120 ordukoa izango da euskaltegian, aurrez aurre, eta beste horrenbestekoa etxean. Gainera, sei tutoretza-ordu egongo dira ikasturte osoan zehar.

Zer eskaintzen du C1+ ikastaroak?



- Komunikazio-hutsuneak betetzea: gaitasuna arlo gehiagotara zabaltzea

- Komunikazio-ekintzak aberastea: euskararen ezagutza sakontzea (adierazkortasuna, kontaketarako eta deskribapenentarako baliabideak...).

- Komunikazio-ekintzetan trebatzea eta ziurtasuna irabaztea.

- Euskaraz sortzen den kultura, lana oro har, ezagutzea: euskaraz sortzen den munduaz gozatzeko bidean/ euskaraz sortzen den munduan parte izateko bidean/ euskaraz sortzearen esperientzia bereganatzeko bidean.

- Euskalkietan sortzen diren testuak ulertzea.

- Hika/Hitanoz sortzen diren testuak ulertzea.

- Ahozkotasunari, prosodiari, arreta berezia eskaintzea.



GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

Santa Eugenia plaza
(Romo Kultur Etxea, 4. solairua). GETXO

Telefona
944 646 502

E-maila
euskaltegi@getxo.eus

Izen-emate epea
irailaren 1etik 23ra.

Lander Iruretagoiena Busturia Euskara irakaslea Erandioko euskaltegian

«Ez da diru kontu bat, sentsibilizazio edo kontzientzia kontua baizik»

Euskara ikasten ari direnei hizkuntzaren atal zailenak modu bisual eta ulerterraz batean irakasteko helburuagaz sortu du Euskaragara erakundea.

ANDER ZARRAGA

Lander Iruretagoiena euskara irakaslearen hasierako helburua izan zen euskara ikasten ari diren ikasleei edo interesa dutenei hizkuntzaren atal zailenak azaltzeko modu erraz eta bisual bat sortzea. Horrela, irakasle gisa, bere ikasleek zituzten zailtasunak ikusita, metodologia erakargarriago eta errazago bat sorteari ekin zion. Horrela azaltzen du berak: «Buruari bueltak emanez, galdetzen hasi nintzen ea lortu nezakeen jendeak gramatikako atal zailenak ulertu zitzala, bidetik motibazioa galdu gabe, eta, aldi berean, euskararekiko atxikipena indartuz».

2009an, dibulgaziorako blog batez gain, Euskaragara.net irabazi asmorik gabeko elkarte bat sortu zuen. Euskarako irakasle bezala sumatu dituen arazoak eta zailtasunak modu erraz eta bisual batean erakusteko metodologia biltzeaz gain, Euskaragara.net euskara sustatzeko elkarte ere badela azpimarratu du Iruretagoienak: «Nik banekien bazegoela esparru bat bete gabe zegoena, eta jendearen beharrezanean erantzungo ziona». Egitasmoa gorpuzten joan zen, eta helburu ho-



Euskararen dibulgaziorako blog batez gain Iruretagoiena. HODEI TORRES

DIGITALA
Liburua argitaratzeaz gainera, Lander Iruretagoienak euskaragara.net webgunea ere sortu du, eduki interaktiboek betea, besteak beste.

rretan oinarrituta, 2014an, *Claves para aprobar el B1. Base de B2 y C1* liburua argitaratu zuen, berak idatzita eta auto-editatuta. Liburuaren 220 orrialdeetan ariketak, idatzizko eta ahozko azterketetarako aholkuak eta beste hainbat tresna eskaintzen ditu, euskararen ikasketa errazteko. Horregaz batera, Iruretagoienak euskaragara.net webgunea ere martxan jarri zuen, liburuaren osagarria dena. Plataforma horretan, bideo-azalpenak, animazioak eta «Euskalkulagailua» bezalako baliabideak sortu ditu.

Aditzak kalkulatzeko kalkulagailua edozein aditz forma bilatzeko eta ikertzeko tresna



KALITATEZKO HEZKUNTZA
EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak:
- Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



da; modu interaktiboan, aditzen morfemak bereizita erakutsi eta hiztegieta agertuko ez diren aditzen flexioak biltzen ditu. Gainera, berak euskaltegia klaseak emateko erabiltzen dituen hainbat trikimailu erabiltzen ditu: koloreen, irudien edo arau mnemoteknikoen bidez azalpenak ulertterazagoak izan daitezke. «Horrela, gauzak hobeto ulertu eta gogoratzen dituen jendea dago», azaldu du Iruretagoienak. Gaineratu duenez, «C2 bezalako mailarako interneten informazio zehatza aurkitzea ere oso zaila da, eta horrelako gauzak argitze-ko helburuagaz sortu nuen tresna da».

EUSKARA HAINBAT ALORRETAN. Liburuaren salmentetatik eta webguneko harpidetzetatik ateratzen duen dirua euskara sustatzeko ekintzetara bideratzen du. Horrela, batez ere gune erdaldunetan, euskarari presentzia emateko euskarriak sortzen dituzte. «Adibidez, publizitatea nahi ez duten atarietan jartzeko aluminiozko plakak egiten ditugu, hori euskaraz adierazita; gure hizkuntzan ez dira horrenbeste aurkitzen, eta egiteko garestiak dira; beraz, guk egin eta banatzen ditugu. Azkenean, zertarako balio du guk hemen



Aditzak kalkulatzeko tresna

«Euskalkulagailua» aditzak modu interaktiboan ikasteko tresna bat da. Horri esker, aditzen morfemak edo hiztegieta agertzen diren flexioak aztertu daitezke, kolore-eskemakaz eta bideo-azalpenakaz lagunduta.

euskara irakasteak, jendeak bere egunero-kotasunean ez badu ikasitako hori ikusten. Azkenean, euskarari prestigioa ematea ere da gure helburua».

Baina ez hori bakarrik. Iruretagoienak egunero erabiltzen ditugun sare sozial edo e-mail kontuak euskaraz nola jarri, eta, besteak beste, horietan agertzen den hiztegia ere aztertzen du bere ikasleakaz. Dioenez, garrantzitsua da alde pedagogikotik, baina baita hizkuntzaren presentzia sareetan indartzeko: «Ez da gauza bera 50.000, 500.000 edo 1.000.000 kontu egotea euskaraz interneten, enpresek eta erakundeek hori kontuan hartzen dutelako, eta horren arabera produktu gehiago euskaratuko dituztelako eta euskaldunak kontratu ere».

Horretaz gain, Iruretagoiena EHuko Arte Ederretako fakultateagaz ere lanean ari da, mural artistikoetan euskararen presentzia bermatzeko. Bilboko Olabeaga auzoan oso famatua egin den *Soñar* berba daraman murala bezalako edukiak euskaraz sortzeko, hain zuzen ere. «Askotan gauzak egiten dira euskararen alde, baina ez da diru kontu bat, sentsibilizazio edo kontzientzia kontua baizik», aldarrikatu du euskara irakasleak.

Publierreportajea **Hamilton Idiomas**



Aurten, lokal berria zabalduko dute, Sopolako Sipiri kaleko 11 zenbakian.

Ohiko eskolak, adimen artifizialez lagunduta

Ikasturte honetan, betiko aurrez aurreko klaseak eskaintzeaz gain, ingeles irakaskuntza eredu oso berritzaile bat merkatu-ratuko du Hamilton Idiomas-ek. Denbora ahalik eta hoberen aprobetxatzeko diseinatu-ta daude klaseak, adimen artifizialez baliatuz. Online eskolak dira; taldeak, gehienez, hiru ikaslekoak, eta ordu erdiko iraupena dutenak.

Hamilton Idiomas

Informazio gehiagorako:

646 763 012

663 628 828 (WhatsApp)

info@hamiltonidiomas.com

Ikasleak bere kabuz egingo du lan –irakasleek gidatuta– nork bere erritmoan aurrera egiteko diseinatu dagoen plataforma batean. Eskola bakoitzean, irakaslea ezberdina izan daiteke, baina hori ere abantaila izango da, munduko azentu ezberdinekin ohitzen lagunduko baitu. Klase mota horietan, kalitatea ez da galtzen, oinarrian sistema informatiko bat dagoelako. Sistemak, alde batetik, ikasle bakoitzak zer dakien eta zer landu behar duen kontrolatzen du, eta, bestetik, irakasleei eskola bakoitzeko plangintza ematen die, ikasle bakoitzak zertan lan egin behar duen jakin dezan. Beraz, eskolak guztiz aprobetxatzen dira adimen artifizialari esker, eta ikasle bakoitzak bere erritmora eta ahalik eta arinen egingo du aurrera.

Eskolen ordutegia oso malgua da. Egutegi batean, aurretik erreserbatzen dira, eta minutu baten aurrerapenarekin bertan behera utzi ahal dira eta beste batean erreserbatu. Beraz, eskolak ez dira inoiz galtzen, eta emango diren edukiak ere ez, guztiz neurritan eginda direlako.

Plataforman, ikasleak nahi duen beste denbora sar daiteke bere kabuz, ez duelako mugarik. Metodo berritzaile hori frogatu nahi? Doako eskola bat eskaintzen dute, euren webgunean izena ematea besterik ez da behar.

Jone Zalduegi Emoki aholkularitza elkarteko kidea

«Askotan, gazteek behar duten

Umeen garapen pertsonal eta emozionalean hainbat faktorek eragiten dute, eta, ibilbide horretan, teknologia berriek, sexuak edota emozioek zelan eragiten duten hausnartu dugu Jone Zalduegi hezitzaileagaz.

ANDER ZARRAGA

E mokik adimen emozionala, teknologia berrien eragina eta sexu-heziketaz lotuta dagoen formakuntza eta aholkularitza eskaintzen die udalei edo ikastetxeei, besteak beste. Uribe Kostan, Getxon eta Leioan egon dira, internet, sare sozialen eta bideo-jokoen menpekotasunerako prebentzioa eta heziketa emozionalaren inguruko tailerrak eskaintzen.

Nolakoa da egiten duzuen lana? Gure lana hiru ardatzetan dago oinarrituta: teknologiaren eragina pertsonengan, adimen emozionalaren garrantzia eta sexualitatea. Azken finean, ikusi dugu pertsonengan garrantzia edo eragin handia duten hiru hanka direla, eta, batez ere, ikasle, irakasle eta gurasoekin lan egiten dugunean elementu horiek beti presente egon ohi direla.

Nolako metodologiak edo tresnak erabiltzen dituzue? Guk, batez ere, metodologia aktiboak erabiltzen ditugu, non taldea den taletarra edo formakuntza eramango duena, orokorrean. Saiatzen gara emozioak eta motibazioa ukitzen, pertsonak hausnarketa egitea bilatzen dugulako.



«Gazteek ordu asko pasatzen dituzte pantailen aurrean, eta, horrek, frustrazioan eta asperduran eragina du»

JONE ZALDUEGI
INTEGRATZAILE SOZIALA ETA
HEZITZAILEA

Beraz, zuen lana gazteen garapenean dago oinarrituta? Bai, guk Lehen Hezkuntzatik aurrera egiten dugu lan; izan ere, gurasoek kezka handiak izan dituzte, adibidez, beraien seme-alabei mugikor bat ematen dietenean ez dakitelako horrek nola eragingo dien. Tablet edo telefono bat erabiltzen hasten diren unetik, beraiekin lanean hasi beharra dago. Gainera, gurasoek ere hausnartu behar dute beraien seme-alabei nolako esposizioa egin nahi dieten, konturatzeko umeentzako probatasuna zer den; askotan ez gara arriskuez jabetzen, arazoan guztiz sartuta gauden unera arte. Beraz, umeei mugikorra ematen zaien unetik, hori erabiltzen erakutsi behar zaie, egoera kaltegarriok saihesteko. Guk gurasoekin ere lanketa hori egiten dugu, asko ardurtzen baitie horrek etorkizunean nola eragingo dien eta ez dakitelako nola jokatu behar duten egoera jakin batzuetan.

Nolakoak izaten dira ezjakintasun horien inguruan sortzen diren arazoak? Ordu asko pasatzen dituzte pantailen aurrean, eta, horrek, frustrazioan eta asperduran eragina dauka. Ez dakigunean zer egin, pantaila bat ematen badiegu, kaltea handia izan daiteke, baldin eta ez badakigu hori nola kudeatu. Beste gauza askorekin gerta daiteke hori bera, baina pantaila batekin ez da gertatzen liburu batekin gertatzen dena, horrek askoz ere eragin handiagoa daukalako umeengan. Bazkaltzeko mugikorra jartzen badiot, eta horrekin konformatzen banaiz, orduan, beti behar izango du mugikorra bazkaltzeko. Bai-

SAN NIKOLAS IKASTOLA

SANIKOLAS.EUS

San Nikolas IKASTOLA

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

a da galdetzea nola dauden»

na, pentsatu behar dugu guk ere zer nolako eredia ematen diegun. Gure irizpide osasun-garriak eman nahi badizkiegu heldu bezala, guk ere hala egin beharko dugu. Adibidez, uneoro umeari argazkiak ateratzen badizkiot, umeak ikasiko du bere burua erakustea normala dela. Hori orekatzea oso zaila da denok gaudelako sare sozialen zurrumbilo horretan sartuta; beraz, hausnarketa propioa egitea oso garrantzitsua da.

Uste duzu lanketa hori eskoletatik edo gurasoetatik hasi behar dela? Agente guztiek egin behar duten gauza bat da. Ume eta gazteak garatuko dira beraien inguru osoaren arabera, ez bakarrik etxean egiten dutenaren arabera. Hala ere, suposatzen da etxean egingo dela oinarritzko lanketa bat, eta, hortik, gainerako esparruetara hedatuko dela. Irakasleak ere, heldu bezala, eredia izan behar dute beraientzako.

Pandemiak ere problematika horiei eragin die? Bai, azken finean, gailuen erabilera asko areagotu egin da etxeratuta egon garenean; askok konfinamenduan mugikorra jaso zuten lehen aldiz, gurasoek ez zekitelako oso ondo zer egin. Horietatik, gehienak mugikorrarekin geratu dira gerora, eta haien sozializazioa hortik hedatu da. Batzuek irizpideak izan dituzte, eta arautu dute erabilera. Hala ere, nortasuna garatzen ari diren gazte asko etxean egon dira, beraien garapenean askatasun gehien behar duten unean, haien berdinekin egon behar dutenean, hain zuzen ere. Horren era-

SEXUALITATEA

«Umeek sexualitatea pornografiarekin lotzen dute askotan; gizartean ere oraindik lanketa bat egin behar da sexualitatea zuzenean penetrazioarekin lotzen delako. Gauza asko daude hor aldatzeko, eta umeei lagundu eta babestu behar zaie, baina beraien bidea egiten irakatsita»

ginez, gazteen artean askoz ere antsietate eta depresio koadro gehiago ari dira ikusten. Ezin dugu ahaztu askok bakarrik behar dutena dela galdetzea ea nola dauden; azkenean, garrantzitsua da ikustea nola sentitzen diren, eta dituzten behar emozionalei erantzutea.

Sexualitatearen inguruan, gurasoei nola gomendatzen diezue arlo hori lantzea? Oso garrantzitsua da sexualitatea ulertzea, benetan nortzuk garen definitzen duen zerbait delako. Azkenean, sexualitatea ez da bakarrik erotika; identitatea ere bada. Beste pertsona batzuk errespetuz tratatzea eta orientazioak ulertzea ere da sexualitatea. Hori etengabe lantzen dugu, askotan ahaztu egiten delako sexualitatea hori ere dela, eta ez bakarrik erotika edo genitalak. Etxean, normalean, ez da galdera magiakoa etorriko umeen aldetik; inork ez die galdetuko bere gurasoei zer gertatzen ari den bideo pornografiko batean. Baina gure buruarekin harreman osasuntsua eta auto-zaintza landua badut, eta horretan lagundu badidate, hori ulertzea errazagoa izango da nire garapenean. Haien gorputzaz jabetzea errespetuarekin eta ulertuz nortzuk diren, hain zuzen ere. Azken finean, umeek sexualitatea pornografiarekin lotzen dute, jendartean ere oraindik lanketa bat egin behar delako, sexualitatea zuzenean penetrazioarekin lotzen baita. Gauza asko daude hor aldatzeko, eta umeei lagundu eta babestu behar zaie, baina beraien bidea egiten irakatsita. Identitatea garatzeko prozesuan etxeko fokua oso garrantzitsua da.



ANDER DEVNĀ
IKASTOLA

Ongi etorri
2021-2022 ikasturte berrira

Gatzarriñe, 47. 48600 SOPELA | 94 676 02 66 | info@anderdeuna.eus

www.anderdeunaikastola.eus

ikastolenekartea

Eskola-kirola bueltan da

Umeentzako eskola-kirolak hainbat baldintza izan ditu azken urtean, baina, ikasturte berriaren hasieragaz, murrizketa guztiak kendu dituzte.

Ikasturte berriagaz batera, umeentzako eskola-kirola ere bueltan da, eta, oraingoan ez du inolako murrizketarik izango entrenatzeko eta lehiatzeko. Horrela iragarri zuten Gotzone Sagardui Osasun sailburuak eta Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuak abuztuaren amaieran egindako 2021-2022 hezkuntza-ikasturterako neurrien aurkezpenean. «Irailetik aurrera, bai entrenamenduak, bai lehiaketak ere martxan egongo dira, inolako murrizketarik gabe», adierazi zuen Bildarratzek.

Hezkuntza sailburuak LABiren uztailleko erabakia berretsi zuen, jakinaraziz eskola-kirolak ez duela inongo murrizketarik izango ikasturtea hasten denerako. Izan ere, eskoletako kirol-jarduerak ekainaren erdialdetik egon dira baimenduta, nahiz eta udaldian nekez egiten diren jarduerak izan.

Eskola-kirola bertan behera geratu zen 2020ko martxoan, konfinamenduagaz batera. 2021eko urtarrilean, aldiz, eskola-kirola baimendu bazuten ere, hainbat baldintzagaz izan zen, eta entrenatzeko bakarrik.

Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak kritika asko jaso ditu pandemian zehar, eskola-kirola gazteen osasun fisiko eta mentalerako mekanismo gisa baztertu duela leporatu baitiote. Horren ondorioz, eta federazioen, klubaren eta guraso-elkarteen eskaria kontu-



Neska-mutilen egoera emozionala hobetzeko garrantzitsua da kirola egitea.

Ez dute zehaztu umeek maskara erabili beharko duten edo kirol-guneetan publikoa sartu ahal izango den ere.

tan hartuta, Bildarratzek adierazi du kezkatuta daudela, «ikasleen eta irakasleen egoera emozionalagatik». Hala ere, oraindino ikus-teko dago gazteek zein baldintza zehatzetan bueltatu ahal izango diren. Entrenatu, jolastu eta aldagelak erabili ahal izango dituzte, baina maskara erabili behar izango duten erabakitzeke dago, eta ez dute zehaztu eskola-kirola praktikatzeko denunean publikoa sartu ahal izango den ere.

Normalean, eskola-kiroletako lehiaketak urrian hasten dira; aldiz, iraila denboraldi-aurrea eta eskola-taldearen prestakuntzarako hilabetea izan ohi da.

Hartu eta zabendu EUSKARAREN kolorea!

10-8-5
ordu astean

%100
euskaltzaleen

BOGA
autodidaktikoa

talde txikiak babas neurriak,
distantzia errespetatuta

Plaza mugatuak

HADE eta bereziki

MARTXAN EUSKARAZ SEGURU

MASTITU EUSKALTEGIA
Gaitzagirre, enbriidea, 70 • 48940 • LEIOA

euskaltzalea.net
euskaltzalea.com

194 464 00 02

Empápate y comparte EUSKARAREN kolorea!

10-8-5
horas a la semana

100%
en el euskaltzale

BOGA
autodidáctico

grupos pequeños con medidas de
protección, respetando la distancia

Plazas limitadas

Información por 194

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

aek
euskara praktikoa



Ilxar Eratsun Urtzela eta Kike Palma
Huele AEK-ko irakaslea eta ikaslea

URIBE KOSTAKO AEK

EUSKARA ESKOLAK

Ikastaro trinkoak

Ordutegi zabalak. Maila guztiak: A1-A2-B1-B2-C1-C2

Autoikaskuntza, online ikastaroak, barnetegiak

Eskaintza bereziak AISA, dendariak, guraso taldeak,...

MATRIKULA ZABALIK IRAILA OSOAN

IZEN EMATEA:

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aec.eus | Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aec.eus

Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aec.eus | Gortiz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aec.eus

Urduliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aec.eus


<http://www.aek.eus/blogak/uribekosta/>

www.facebook.eus/uribekostako.aek

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: maila egiaztatuz gero.

UDAL GUZTIAN



Joan den uztailaren 24tik abuztuaren 8ra bitartean izan ziren Tokio 2020 Olinpiar Jokoak aukera horietan parte hartzeko, tartean eskualdeko lau: Virginia Diaz, arraunean; Joan Azken horrek, zoritxarrez, ezin izan zuen parte hartu, COVID-19a atzemateko PCR proba Japoniaren kontrako partidan. Lauren artean, Diaz eta Basterragaz berba egitean lo

Jose Maria «Chefo» Basterra Belar-hockey jokalaria

«Jokoetan, amets egin beharra zegoen»

Getxoztarra diplomagaz bueltatu da etxera, bere debut olinpikoan, final-laurdenetan Belgikaren kontra galdu ondoren. Bizitakoaz eta kirolari legez egindako eboluzioaz aritu gara beragaz.

Zelan bizi izan dituzu zure lehenengo Olinpiar Jokoak? Olinpiar Jokoak bizitzea mundiala izan da. Esperientzia ahaztezina eta paregabea da, mundu guztiari horren alde borrokatzea gomendatuko niokeena. Han bizi izan nituen une guzti-guztiek gozatzen saiatu naiz. Hiri Olinpikoa, giroa, historiako kirolari onenetako bategaz bizitzea eta berba egitea... Ikaragarria da, guztia.

Jolasetatik hasita, Madrilgo Club de Campo talderaino; zelan definituko zenuke zure ibilbidea? Uste dut oso bilakaera positiboa izan dudala, batez ere, azken urte eta erdi honetan. Nire bizitza osoko taldeagaz asmo guztiz desberdinakaz jokatzetik, Espainiako talderik onenetako batean jokatzera eta Estatu zein Europa mailan tituluengatik borrokatu ahal izatera pasatu naiz.

Gogoratzen al duzu nolakoa izan zen goi mailako ligara egin zenuen jauzia? Nire lehen partida ofiziala oso zirraragarria izan zen. 16 urte nituen, eta nahiz eta haiekaz denboraldi-aurreko partida bat edo bi jokatu, ez nuen jokatzeko asmorik. Partida Santanderren jokatu zen, Sardinero HCren aurka, jaitzieragatik aurkari zuzena zena, eta, horregatik, partida garrantzitsua zen, tentsio eta intentsitate dezentekoa. Oso ondo jokatu genuen, eta 3 eta 1 irabazi ere.

Azken ligan goleatzaile nagusia izan zara. Aurten Jokoetara deitzea espero zenuen? Egia esan, urtarrean galdetuko bazenit, ezetz esango nizuke; baina hilabeteak igaro eta



Getxoztarrek 2024ko Parisko Olinpiar Jokoak ditu buruan orain.

Zer balorazio egiten diozu Jokoetan bizitakoari?

«Domina bat lortzea espero genuen, baina, errealistak izanda, oso zaila zen. Hala ere, ondo jokatu dugu, eta aurre egin ahal izan diegu selekzio onenei. Konfiantza handia genuen, eta amets egin ere. Dena dela, gakoa izan zen Argentina eta Zeelanda Berriaren kontra galdu izana, gu hobeagoak izanda ere. Horrek ekarri zuen posizio txarrean sailkatzea eta Belgikari aurre egin behar izatea».

deialdi berriak atera ahala, partidak jokatuz, joan nintekeela gero eta uste handiagoa hartzen ari nintzen. Gainera, liga irabaztea, jokalaria hobe izendatu izana, goleatzaile onena izatea eta Europako Txapelketarako deialdia egitea aurrerapauso garrantzitsua izan zen. Nire ustez, hor esan nuen: «Ez duzu presiorik, baina Olinpiar Jokoetara joan behar duzu». Zorionez, lortu ahal izan nuen.

Selekzioko jokalaririk gazteena izan zara. Zer iritzi diozu horri? Abantaila bat bezala ikusi dut, esperientziadun askogaz hitz egin ahal izan baitut partiduen eta txapelketaren hasieraren aurretik; aholku asko eman dizkirate, eta beren esperientziak kontatu ere nire egoera berdinean egon zirenean. Eroso eta lasai egon nintzen jokatzeko orduan. Gainera, unerik zailenetan, ondo kudeatu zuten dena. ◀

koak, pandemiak eraginda, urtebete atzeratu ondoren. Denera, Euskal Herriko 31 kirolarik zuten Jose Maria Basterra, belar hockeyan; Xabi Lopez Arostegi, saskibaloian; eta Jon Rahm, golfearan. Proba batean positibo eman zuelako; saskibaloi jokalaria, aldiz, lesionatu egin zen lehia batean, bertu du HIRUKAk; hona hemen euren ibilbide olinpikoez kontatutakoak. IKER RINCON MORENO ►

Virginia Diaz Arraunlaria

«Finalean ez genuen lortu egoera iraultzea»



Areetako Raspas Arraun Elkarteko kirolaria da Virginia Diaz. HODEI TORRES

Virginia Diaz arraunlari getxoztarraren eta Aina Cid kataluniarraren ontzia lemazainik gabeko finalera ailegatu zen Tokioko Olinpiar Jokoetan, podiumetik zortzi segundora amaitu ondoren (7:00.05). Jokoak amaituta, horietan bizitako, zailtasunez eta etorkizunaz berba egin dugu kirolariagaz.

Urtebeteko atzerapena izan dute Jokoak. Zelan hartu zenuen hori? Hasiera batean, ziurgabetasuna zen nagusi, atzerapena baieztatu zuten arte. Hala ere, gero, albiste positiboa zela ulertu genuen taldekook, denbora gehiago genuelako entrenatzeko. Urtebete baino ez generaman Cid eta biok elkarregaz arraunean lemazainik gabeko ontzian; beraz, denbora gehiago izatea positiboa izan da guretzat, fisikoki eta teknikoki hobetzeko.

Etorkizunerako helbururik?

«Nire lehenengo Olinpiar Jokoak izan dira hauek, eta ez dut buruan oraindino erretiroa hartzea. Pariseko Jokoetan pentsatzen hasia naiz orain, baina, aurretik, deskantsurako tartea hartuko dut. Ondoren, etorkizuna eta hurrengo zikloa ondo planifikatuko dugu taldekideok»

Zelakoak izan dira prestaketa-lanak? Goi mailako hiru kontzentrazio egin ditugu, eta martxoan, Jokoen aurretik, beste bat. Gehienak Banyolesen (Katalunia) izan dira, baina azkenak Legutianon (Araba) egin behar izan ditugu, Banyolesen hainbat positibo egon zirelako; Munduko Kopa bat galdu genuen kutsatuetako baten kontaktu zuzena izan ginelako, eta ez genuen arriskatu nahi gehiago. Hala, auto-isolatu ginen bertan, Tokiora joan arte.

Zelan bizi izan dituzu zure lehenengo Olinpiar Jokoak? Ilusioz eta emozioz bete. Familia ikusi barik denbora luzez egon ondoren, Tokiora joan aurretik, agur polit-polita egin zidaten Madrilen. Gainera, Espainiako eliteko kirolari onenakaz hegazkin berean joatea izugarria izan zen. Jokoak, berez, goi mailako edozein lehiaketa bezalakoak izan ziren, baina horren inguruan zegoen guztia sinestezina zen.

Finalera heldu zineten, baina seigarren lotu. Zelakoa izan zen lehia? Aurreko estropadetan zailtasunak izan genituen aurrera egiteko, eta gain-azpi egin behar izan genuen guztietan. Finalean ere apur bat atzeratuta ateratu ginen, baina, kasu horretan, ezin izan genuen egoera irauli. Atzean geratu ginen, eta ez genuen handik irteten jakin. Emaitzagaz pozik nago, diploma olinpikoa balioan jartzen dudalako. Baina, kirolari moduan, kritikoa naiz, eta beti gehiago nahi dut; ez dut uste gure bertsiorik onena eman genuenik egun horretan.

Zeintzuk zailtasun izan zenituzten? Tifoi baten aurreikuspena zegoen, eta finalaurrekoa eta finala batu ziren; ez genuen denborarik izan % 100ean osatzeko. Gainera, Cid eta biok ez ginen gai izan guztiz bat egiteko, haizeak jotzen zuen eta horrek guztiak eragina izan zuen. Baina tira, goi mailako kirolariok egoeretara moldatzeko gai izan behar gara. ◀

Kameraren moduak eta noiz erabili

Abiadurari lehentasuna eman ala diafragmari? Kameren automatismoak laguntzeko daude. Horiek ezagutu behar ditugu kameren menu luzeetan ez galtzeko eta gure argazkietan kontzentratu ahal izateko.

PASM eta Auto

Gure argazki kameretan modu ezberdinak ditugu. Batzuk erdi automatikoak dira, besteak, aldiz, manualak. Argazkiak egiterakoan, kontuan eduki behar dugu zein den modurik egokiena, edo zeinek laguntzen digun gehien. Teknika ikasteko edo argazkilaritzaren teknikak ondo eza gutzen ditugunean, egokiena da modu manuala erabiltzea, kameraren kontrola, oso-osorik gure esku dagoelako.

Kiroletako argazkiak egin beharra badugu, eta oraindino oso trebeak ez bagara, aldiz, S moduak lagunduko digu; berriz, hasiberriak garenean, eta argazkiak egitea besterik ez bada gure nahia, modu automatikoa erabili beharko genuke. Oraingo honetan, aukera ezberdinak ikusiko ditugu, baina gogoratu kamera bakoitzean hamaika aukera daudela eta kameraren liburuxketan ondo informatzea dela inportanteena.



Auto - Automatikoa:

Modu automatiko osoa argazkilari hasiberriek erabiltzen duten kamera modu nagusia da.

Horrela, kamerak automatikoki aukeratuko ditu doikuntza guztiak. Kamerak esposizio-doikuntza nagusiak ezartzen dituen kameraren programa-moduan ez bezala, tiro-modu horretan kamerak fokuratzeko modua, neurtzeko modua, zuri-balantzea, kolore-profila eta abarrak ere ezarriko ditu. Kamera trinko edo smartphone gehienetan antzera funtzionatzen du. Modu hau erabiltzea tentagarria izan daitekeen arren, oso mugatua da, eta ez da gomendatzen.

Kamera moduaren sinboloa, orokorrean, berdez «auto» bezala irudikatzen da, eta kamera bat edo, besterik gabe, kamera pantaila bezala.



P - Programa:

Kameraren programa modua edo kameraren P modua oinarritzko moduetako bat da, eta kameraren modu automatikotzat hartzen da.

Modu honetan, kamerak irekiera eta abiadura ezarriko ditu eszenako argiaren arabera, zero-eksposizio-balioa lortzeko. Kameraren dialak esposizio-triangeluaren doikuntza nagusiak kontrolatzen ditu, baina ez beste doikuntza batzuk, hala nola neurtzeko modua, zuri-balantzea, fokuratzere-mua, etab.

Modu ona da hasiberrientzat eta oinarritzko doikuntzarik onenak zeintzuk diren erabakitzea zaila den egoera zail horientzat. Hala ere, oro har, ez nuke modu hori gomendatuko, ez dugulako modurik izango irudiaren alderdi garrantzitsu batzuk erabakitzeko, hala nola eremu sakontasuna, mugimendua eta abar.


A/Av - Diafragmari lehentasuna:

Kameraren Av edo A modua hautatzen dugunean, irekiera (diafragma) finkatu beharko dugu, eta kamerak automatikoki ezarriko du abiadura esposizio orekatua lortzeko. Irekiera zabal erabiltzen bada, kamerak abiadura azkarragoa hautatuko du; irekiera itxiagoa erabiltzen denean, berriz, kamerak abiadura motelagoa ezarriko du.

Kameraren lehentasun-modu honi esker, eremu-sakontasunaren gaineko kontrola izango dugu.

Argazkigintzan gehien erabiltzen den kamera-moduetako bat da hau, eta argazkilari profesionalak asko erabiltzen dute.

Nik erretratu argazkiak, edo hondo lausotua lortu nahi dudanean erabiltzen dut irekieraren lehentasuna. Horrela, irekidura zabal bat hauta dezaket hondo lauso batekin eremu-sakontasun estua lortu nahi badut, eta nire kamerak automatikoki doituko du obturazio-abiadurarik onena.



Tv/S - Abiadurari lehentasuna:

Obturazioarekiko edo abiadurarekiko lehentasun-modua edo Tv/S kamera-modua.

Kameraren Tv edo S modua erabiliz, abiadura finkatuko dugu, eta kamerak irekidura ezarriko du esposizio on bat lortzeko dagoen argiaren arabera. Abiadura azkarra finkatzen dugunean, kamerak irekiera zabala hautatuko du; abiadura zenbat eta motelagoa izan, orduan eta estuagoa izango da kamerak aukeratutako irekiera.

Kameraren lehentasun-modu hau erabili ohi da subjektuaren mugimendua izozteko edo, aitzitik, haren mugimendua harrapatzeko abiadura espezifiko behar dugula dakigun egoeretan. Horregatik, asko erabiltzen da kiroletan.

Hala ere, muga batzuk daude abiadurari lehentasuna emateko moduan. Adibidez, abiadura oso azkarra erabiltzen dugunean, argi nahikorik ez badago, kamera mugatuta egongo da lentearen irekiera maximoaren arabera, eta irudia azpiesposizioekin geratuko da.

Nire kasuan, kamera modu hau mugimendua izozteko behar dudana abiadura dakidanean baino ez dut erabiltzen, adibidez, kiroletan eta animaliak edo ibilgailu azkarrak fotografatzeko. Batzuetan, kontrakoa lortzeko ere erabil daiteke; abiadura motela duten argazkiak egiteko.



M - Manuala:

Kameraren modu aurreratua da hau, eta guztiz manuala den modutzat hartzen da.

Kameraren gaineko kontrol osoa izango dugu, esposizio-doi-kuntzarik onenak zeintzuk diren erabakitzeko, argi-baldintzen eta subjektuaren arabera.

Izango dugun gida bakarra kameraren fotometroa izango da, eta esposizio-balioa guk geuk aukeratuko dugu, argazki argiago edo ilunagoa nahi dugunean.

Hasten ari diren argazkilariei beldurgarria iruditu ohi zaien arren, modu hau da kameraren modurik onena eszena geuk nahi dugun bezala islatzeko, eta menderatu behar dugun kamera-modua da, trebezia lantzeko.

Pertsonalki, kameraren modu manual hau erabiltzen dut egoera gehienetan eta, kasu askotan, izarrei argazkiak edo panoramikak egiterakoan ezinbestekoa da!

Modu manuala erabil daiteke reflex eta mirrorless kamera guztietan, eta, askotan, konpaktuetan ere bai.

Bere ikonoa M modua da kameraren dialean.

Ahal duzuenean, erabili modu manuala, eta azkarrago ikasiko duzue kamera ondo erabiltzen; gainera, horrek asko lagunduko dizue beste gauzetan hobetzeko.

Bereziak

Badaude bestelako modu bereziak kameretan. Orokorrak direnak ikusiko ditugu hemen, baina gogoratu kamera bakoitzak bere ezaugarri eta modu propioak dituela.

Erretratu modua

Modu honek diafragma zabala ezartzen du eremu sakontasun txikia lortzeko eta erretratuetan hondoa desenfokatzeko.

Paisaia modua

Kameran dagoen mendiaren ikonoa paisaia moduarekin lotuta dago. Modu honek eremu sakonera estua erabiltzen du paisaiei argazkiak ateratzeko.

Kirol modua

Abiadura azkarragoa ezartzen du, animaliak, kirolak eta mugimendu azkarreko ekintzak daudenean subjektuaren mugimendua izozteko.

Makro modua

Makro modua erabiliz, kamerak objektibotik gertu dauden subjektuak enfokatzeko du. Animalia txikiak, intsektuak edota loreak ateratzeko erabiltzen da sarri.


C edo modu pertsonalizatuak

Kamera batzuetan, gure modu semiautomatiko edo pertsonalizatuak sor ditzakegu; gehien erabiltzen ditugun balioak edo ezaugarriak gorde eta azkarrago lan egiteko laguntzen digute.

ISO automatikoa edota mugatua

ISO balioa, normalean, manulean erabili dugu, guk aukeratuta, baina aukera dago ere automatikoan jartzeko. Batzuetan lagunduko digu, adibidez, argi gutxi dagoen inguruetan edo azkar erabaki behar ditugunean beste bi balioak (abiadura eta diafragma).

Hori bai, gomendio garrantzitsua: ISO automatikoa erabiltzen baduzue, muga ezazue. Gure kamera ezagutu behar dugu eta jakin zein ISO erabili zarata digitala agertu barik. Kamera batzuetan muga 3200 ISO izango da, eta beste batzuetan 800 ISO, gure kamerak sortzen duen zarata digitalaren arabera.



Urrian:

Kameraren trikimailuak

Hirukira olgetan


© GARBIÑE UBEDA

Zaku lasterketa

Lehen iruditik bigarrenera bospasei segundoko aldea besterik ez dago, baina, tarte horretan, gauza asko aldatu dira, ezta? Horrez gain, elementu bat desagertu da. eta berri bat agertu ere. Ikusten al dituzu?



Arrain honek mugimendu jakin batzuk egin behar ditu laukiz lauki sarean harrapatuta ez gelditzeko: hiru aurrera, bi behera, hiru aurrera, bi behera... horrela etengabe joan beharra dauka, irteerara iritsi arte. Baina, nondik hasiko da? Zein zirrikitutatik joan beharko du? Lau dituzu aukeran.



Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, ondoko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?



Saria

Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 3 urtetik gorako umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, irailaren 24a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo bete webguneko Zozketak ataleko galdetegia.



Zer iruditzen zaizkizu kale-zurruta egiteko bilkurak?



JABIER ALTZORRITZ
ALGORTA

Uste dut gazteek beraien bizitza bizi behar dutela, helduek ere bizi izan genuen bezala; seguru beraien gurasoak ere tabernetan egongo direla edaten. Esaten da gazteek osasun-neurriak ez dituztela betetzen, baina tabernetan eta horrelakoetan ere berdin gertatzen da. Uste dut interesa dagoela fokua hor jartzeko.



IRATI GARAIZAR
ALGORTA

Ukertzen dut zergatik egiten duten, sozializatzeko beti egin den gauza bat delako. Orain, txarragoak edo handiagoak dira ez dagoelako jairik, eta tabernak ere goizago ixten dituztelako. Egin ditzaketen gauzak murrizten bazaizkie, beste aukera batzuk bilatuko dituzte.



VIRGINIA PRIETO
AREETA

COVID-19-agaz txarrera joan den gauza bat dela uste dut. Hala ere, gai konplexua iruditzen zait; ez da bakarrik gazteen kontu bat, oro har, gizartearen arazo bat dela pentsatzen dut, gizarte nahiko alkoholizatua dugulako, eta, askotan, ez gara benetan kontziente horrek dakarrenagaz.



UR GARAIZAR
ALGORTA

Normala iruditzen zait kale-zurruta egitea. Bi urte daramatzate jai barik eta ez dute bestelako aukerarik. Azkenean, gazteak garenean elkarrekin egotea oso garrantzitsua da harreman sozialak mantentzeko, eta hori izaten da daukagun modurik errazena.



ITZIAR OSA
ALGORTA

Kontrolarekin egiten bada ondo dago, gainera, beti egin izan den gauza bat da. Ondo eginda eta gauzak batzen egin daitekeela uste dut, nahiz eta azkenaldian apur bat kontrolpetik atera den, eta geratzen den zaborrean nabaritzen da hori. Baina, errespetuarekin egiten badugu, ez dago hain txarto.



NEREA LORES
ALGORTA

Adinaren arabera uste dut bai kontrolatu beharko litzatekeela apur bat gehiago. Adingabeak ez badira eta talde handiegiak ez badira, ez dut hain txarto ikusten; gero, garbi uzten badute, noski. Orain, ez dago jairik, ez dago txosnarik, orduan jendeak kalean edaten du.



IKER LEKANDA
ALGORTA

Gaztetan denok egin dugun gauza bat da; 15 edo 16 urterekin ez duzu dirurik tabernetan egoteko, beraz, lagunekin irtenbide hori bilatzen duzu. Debekua ez da konponbide ona izaten, beste leku batera joango direlako. Uste dut kontzientzia-zio kontu bat dela: zaborra batu eta auzokoak errespeta ditzaten.



ANE PALACIOS
ALGORTA

Esango nuke gehiago kontrolatu beharko litzatekeela jende-kopurua eta adina, gazteegiak ez izateko. Ez zait txarto iruditzen lagunaren artean eta leku aproposetan egitea, baina ez kale erdian. Orain, gazteen artean erlazionatzeko daukagun modu bakarra da, ez dagoelako jairik ez horrelakorik.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa

Non dago?

Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko lau ikuskizunetako batez gozatzeko sarrerak irabaz ditzakezu

Muxikebarri Antzokiko lau emanaldietako batera joan gura baduzu, irailak 15 (eguztana) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (zein ikuskizunetarako sarrerak gura dituzun adierazi): hiruka@hiruka.eus; edo bete hiruka.eus webguneko Zozketak ataleko formularioa.



Sariak

Haur-ikuskizuna



Kantu Koloreren *Ametsen urtebetetzea* ikuskizuna, irailak 19, 18:00etan.

Getxo Folk



Miren & Roberto Etxebarriaren kontzertua, irailak 22, 19:00etan.

Getxo Folk



Fabian Carboneren *Cyclical tango* kontzertua, irailak 26, 19:00etan.

Bixente Martínez



Txoria buruan eta ibili munduan diskoaren aurkezpena; urriak 3, 19:00.

Zozketa

Xixili lamiaren sekretuak

Leire Lekuona getxoztarraren *Xixili. Hegatsa galdu nuenekoa* liburu bi zozkatuko ditugu. Horren nondik norakoak irakurgai dituzue hiruka.eus atarian egindako elkarrizketan.

Zozketan parte hartu gura baduzu, irailak 26 (domeka) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona (adierazi zein otzara-mota irabazi gura duzun): hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



IZAKINEN AMAIERAKO MERKATUA MERCADO 15-18 iraila septiembre DE SALDOS



**KONTSULTA ITZAZU ESTABLEZIMENDU
PARTE-HARTZAILEAK - CONSULTA LOS
ESTABLECIMIENTOS PARTICIPANTES**



Getxo
bizi ezazu

